



Gobernuari eta gardentasunari buruzko txostena

**EiTBren Gizarte Erantzukizuna
2015-2016ko memoria**

A ERANSKINA

Txosten hau aukera exhaustiboaren arabera landu da, eta AENOR-ek egiaztatu du, GRIren G4 gidari eta komunikabideen gehigarriari jarraiturik.

Espedientea: 2002-0225-GRI-01

VMS 2017/0014



ENPRESAREN GOBERNUARI BURUZKO TXOSTENA

EiTBren Gizarte Erantzukizunaren Memoriak 4 agiri ditu

- 1. agiria: EiTBren Gizarte Erantzukizuna. 2015-2012ko Memoria
- 2. agiria: A eranskina: Gobernuari eta gardentasunari buruzko txostena
- 3. agiria: B eranskina: Etekin Adierazleen Taula (GRI 4)
- 4. agiria: C eranskina: Informazio Korrespondentziaren Taula (GRI 4)

Aurkibidea

5	Zuzendari nagusiaren aurkezpena
6	1. zatia: Enpresaren profila <i>Enpresaren egitura</i> ♦ <i>Eskaintza</i> ♦ <i>Hedapena</i> ♦ <i>Enpresaren partaidetzak.</i>
11	2. zatia: Gobernu arduratsua
12	Eginkizuna, ikuspegia eta balioak
13	Gobernu korporatiboaren sistema <i>Zuzendaritza nagusia</i> ♦ 1) <i>Taldearen eta haren sozietateen zuzendaritza taldea</i> ♦ 2) <i>Erakundearen eta haren sozietateen gobernu organoak</i> ♦ 3) <i>Kudeaketa sistemak</i> ♦ 4) <i>2015-2016ko gertakari garrantzitsuak.</i>
22	Kode etikoari atxikitzea
23	Kontrol Organoak
27	3. zatia: EiTBren Gizarte Erantzukizunaren eredua <i>GEK eta EiTBren Plan Estrategikoa</i> ♦ <i>Stakeholder-ekiko erlazio ikuspegia</i> ♦ <i>GEKren dimentsioak eta irismena</i> ♦ <i>Stakeholder-en eraginaren azterketa</i> ♦ <i>GEKren sei dimentsioetan</i> ♦ <i>Alderdi garrantzitsuen azterketa nagusia</i> ♦ <i>Erlazioa hornitzaileekin eta balio-katearekin</i> ♦ <i>GEK kudeatzea</i> ♦ <i>Interes-taldeen (Stakeholders) segmentazioa</i> ♦ <i>GEKren komunikazioa</i>
40	4. zatia: 1. gardentasun-txostena: Berariazko legeriari eta borondatez onartutako autoarauketa-arauei buruz <i>Berariazko legeria aplikagarria</i> ♦ <i>Borondatez onartutako autoarauketa-arauak</i>
51	5. zatia: 2. gardentasun-txostena: Gizartearekin arduratsuak diren komunikazio-enpresei berezkoak zaizkien enpresa-gardentasuneko eskakizunei buruz

62	6. zatia: 3. gardentasun-txostena: Plantillari, zuzendaritza-taldeari eta ordainsari-sistemari buruz
85	7. zatia: 4. gardentasun-txostena: Kontratazio publikoari buruz
87	8. zatia: 5. gardentasun-txostena: EiTBko telebista, irrati eta Interneteko erabiltzaileen defentsari eta informazioa eskuratzeko eskubideari buruz.

Aurkezpena

2008ko maiatzean ehun pertsonatik gora bildu ziren egindako lehen *world café*-an EiTbren gizarte-erantzukizunari buruz hitz egiteko. Euskadiko hainbat elkartetakoak ziren, eta denek zuten helburu bera: EiTbren gizarte-ikuspegia sustatzea. Bozketetan ardatzei eta proiektuei lehentasuna eman zitzaion.

2016ko urtarrilean gizarte-ekonomian adituak diren profesionalen osatutako talde batek elkarriketa sakonak egin zitzaizkien oso bestelako erakunde eta jarduerako berrogei pertsonari, euskal gizarteak EiTbri zer balio-ardatz eskatzen dizkion identifikatzeko. Jarduera horri esker, zuzenean jakin ditzakegu zer indargune garatu behar dituen EiTbk euskal gizartearen eskaerei gero eta hobeto erantzuteko.

Egiten ditugun azterketek balioetsi egiten dute gure gizarte-erantzukizunari buruzko ikuspegia eraikitzen dugun sei dimentsioak gure Stakeholder-ek (interes-taldeek) eskatzen dituzten ardatzen barruan daudela. Horrenbestez, haren edukiak eguneratu eta egokitu behar ditugu, une bakoitzaren sentikortasunari eta gizarte-errealitateari erne egiteko. Sei ardatz hauek lantzen ditugu:

- I. **Herritarrak.** Euskal gizartearekin harreman eta konplizitate osoa duten ekimenak lantzeko, euskal gizartearen sentikortasunarekin bat egiten duten gizarte-ekimenak kontuan hartuz eta sortuz.
- II. **Euskara.** *Euskara espezializatua sortu, babestu eta hedatzen* laguntzeko, batz ere euskararen erregistro desberdinak menderatzen dituzten komunikatzaile gaituekin.
- III. **Euskadi munduan.** *Euskarazko edukien eskuragarritasun hobea* izaten laguntzeko eta *Euskadi-Basque Country munduan marka zabaltzeko*, bereziki Internet bidez eta nazioarteko telebista-emanaldien bidez.
- IV. **Pertsonak.** Bere langileen artean laneko bizitza familiakoarekin uztartzeko eta garapen profesionala sustatzeko.
- V. **Ingurumena.** EiTb *ingurumenaren alorrean hedapen-agente garrantzitsua* izateko, enpresari dagokionez, jarduera aurreratuak eta bereziak bere gain hartuz.
- VI. **Enpresaren kudeaketa.** EiTbk balio-katearen enpresa-iraunkortasuna berma dezan, horrez gain, hornitzaile eta bezeroen interesa ere kontuan hartuz, inguruan bertan jarduera eta aberastasuna sortuz.

Txosten honekin hamar urte bete ditugu dagoeneko Gizarte Erantzukizuneko emaitzen aurkezpen sistematizatua egiten. Gardentasunaren arloan hartutako konpromisoari eusten diogu, arlo honetan erreferentziako komunikazio-talde publikoa izateko helburuarekin. Horrenbestez, Eusko Legebiltzarrak egindako eskaerak ere bete ditugu, indarrean dagoen lege-gorputzaren nabarmen aurretik daudenak, eta komunikabideetan aplikatutako gardentasunaren arloan nazioarteko estandarrik aurreratuena gure gain hartu ditugu.



Maite Iturbe Mendiola

Zuzendari nagusia



ENPRESAREN GOBERNUARI BURUZKO TXOSTENA

1. zatia

Enpresaren profila

EiTB Eusko Jaurlaritzaren menpeko *erakunde publikoa* da; Eusko Legebiltzarrak sortu zuen, 1982an, gizarteak botere publikoei berezko ikus-entzunezko komunikazioko talde bat, publikoa, eskatzen zielako, Autonomia Estatutuaren 19. artikulua babesean.

EiTBren helburua, sortu zenetik, *adierazpen-askatasunaren defentsa, komunikatzeko eta informazioa askatasunez jasotzeko eskubidea zaintzea eta zeregin hori gizarte demokratiko baten eskakizunekin bat etorri betetzea da, euskararen normalizazioa bultzatuz.*

EiTB Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakunde Federazioko (FORTA) kidea da, eta erakunde horren bidez zenbait komunikazio- eta erlazio-jarduera egiten ditu Estatuko ikus-entzunezko sistema arautzailearen hedabide eta erakundeekin. Horrez gain, Europako eskualde telebisten elkarteko (CIRCOM) kidea ere bada, eta beste eginkizun batzuez gain, Europako Batzordearen kontsulta-erakundea da ikus-entzunezko gaietarako.

Enpresa-egitura

EiTBk pertsona bakarreko lau sozietate anonimoren bidez jarduten du (EiTBk % 100ean parte hartzen du horietan): Euskal Telebista SAU (telebista), Eusko Irratia SAU eta Radio Vitoria SAU (irratia) eta Eitbnet SAU (Internet).

Sozietatearen egoitza, zerbitzu zentralak eta telebistaren, irratia eta Interneten negozio-unitateak Bilbon daude. Donostian Telebistako Programen Produkzio Zentroa dago, bai eta euskarazko irratieteen egoitza ere. Eta Gasteizen Radio Vitoriaren egoitza eta hiriburuko telebista- eta irratibulegoak kokatzen dira.

Horrez gain, EiTBk *Iruñean eta Baionan* bere irratia- eta telebista-baliabideetarako zentroak dauzka. Era berean, bulegoak dauzka *Madriren, Bartzelonan, Bruselan, Pekinen, Londresen, Parisen, Bogotan eta New Yorken*, bai eta nazioarteko gertakizun nagusiei jarraitzeko bulego ibiltariak ere.

Guztira, EiTB Taldeak mila enplegatu inguru dauzka, eta 350 eta 450 pertsona bitarteko enplegu indutua sortzen duela zenbatesten da. 130 milioi euroko ustiapen-aurrekontu bateratua dauka (2016).

Eskaintza

EiTB Taldeak EAEko bi hizkuntza ofizialetan emititzen du, alegia, euskaraz eta gaztelaniaz, telebista, irratia eta Internet euskarrien bidez. Hori dela-eta, EiTB kasu berezia da Europan, bere *eskaintza nagusia* komunikazio elebiduna duen enpresa bakarra delako.

EiTBk orotariko telebista-kate bat (ETB1), haurrentzako eta gazteentzako gaiak dituen kate bat (ETB3), orotariko irratia bat (Euskadi Irratia), entzule gazteentzako irratia-formula bat (Gaztea) eta informazio eta entretenimenduko edukiak dituen atari bat (EiTB.EUS) eskaintzen dizkio audientzia euskaldunari. Euskarazko eskaintza multimedia nagusia eta ia bakarra da herritar euskaldun gehienentzat.

EiTBk orotariko telebista-kate bat (ETB2), orotariko irratia bat (Radio Euskadi) osagarri batekin (Radio Vitoria) eta informazio eta entretenimenduko edukiak dituen atari bat (EiTB.EUS) eskaintzen ditu gaztelaniaz.

Halaber, beste telebista- eta irratia-kanal elebidun hauek dauzka, eskaintza nagusia osatzeko eta edukien eskuragarritasuna optimizatzeko asmoz: ETB4 (TDT), Canal Vasco (satelite eta

kable bidez Europan eta Amerikan banatua) eta EiTb Musika. Irrati eta telebista eskaintza ere du *streaming* bidez.

Hedapena

Telebista, irrati eta Internet euskarriak banaketako enpresa espezializatuen bidez hedatzen dira. Irratiaren eta telebistaren lurreko hedapena EAEn *Itelazpi* sozietate publikoari dagokio.

2016. urtean zehar erakunde-akordioak egin dira Nafarroako Goru Komunitatean telebista-kanalak eta irrati TDT-z emateko, Foru Administrazioak berak kudeatzen dituen multiplex-en bidez.

EiTbK akordio bat du *Syndicat Intercommunal pour le soutien à la culture basque* delakoarekin (Iparraldeko Euskal Herriko tokiko erakundeek osatua), Ipar Euskal Herrian telebista eta irrati edukiak emateko, Frantziako hedapen digitaleko sistemaren bidez.

Era berean, EiTbK kable eta satelite bidezko banaketa-operadoreekin, Euskadin zein Estatuan jarduten dutenekin, dauzka aliantzak. Euskadin izan duen hedapenarengatik bereziki nabarmentzen da *Euskaltel*; gainerako operadoreak hazte-prozesuan daude inbertsio handiekin eta merkataritza-kanpaina indartsuekin. Horrez gain, Canal Vasco kanala Espainian eta Frantzia telebista banatzen duten kable-operadore nagusien bidez banatzen da.

Internet bidez munduko edozein tokitatik ikus daitezke edukiak, azkar eta eraginkortasunez, eta horretarako aliantza teknologikoak egin ditu telekomunikazio-operadoreekin.

Ameriketan Hispasat satelitearen bidez hedatzen da telebista. Horrela, konektatuta dauden etxeetatik sarbide zuzena ematez gain, Amerikako hainbat kable-operadoreri seinalea ere ematen die, eta telebista-seinalea jarduten duten mugapeetan banatzeko baimena du.

Enpresa-partaidetzak

Expressive SL publizitatearen merkatuan eta komunikazio-enpresekin zerikusia daukaten produktu eta zerbitzuetan espezializatuta dagoen komertzializazio-enpresa da. Sozietatearen egoitza Bilbon du. EITBNETek % 25eko partaidetza du akziodun minoritario moduan. Gainerako % 75a akziodun pribatuei dagokie.

EiTb Taldeak irabazi-asmorik gabeko erakunde hauetan ere parte hartzen du:

- *Vicomtech-IK4*. Irabazi-asmorik gabeko elkarte, IK4 aliantza teknologikoko kidea, ikerketa aplikatuko zentro gisa diharduena ordenagailu bidezko grafiko interaktiboan eta teknologia multimediararen arloan. EiTb Taldea eta INI GraphicsNet talde alemana dira enpresa fundatzaileak. Gaur egun EiTbren sozietateek eta beste hamasei erakundek osatzen dute elkarte. Miramongo Parke Teknologikoan kokatuta dago, Donostian.
- *Euskadi Kirola Fundazioa*. BAT Basque Team kudeatzen duen fundazioa; goi-mailako euskal kirola bultzatzea du eginkizun, goi-lehiaketan euskal kirolarien ordezkaritza oparoa erakartzeko. EiTbK, EAEko Administrazio Orokorrarekin batera, % 50ean parte hartzen du.

Aurrekoaz bestelako esparru batean, laguntza instituzionalekoan, azpimarra daiteke EiTb Taldeak bost erakundetan parte hartzen duela patronatuko kide gisa:

- *Guggenheim-Bilbao Museoa,*
- *Bilboko Arte Ederren Museoa,*
- *Donostiako San Telmo Museoa,*
- *Gasteizko Artium Museoa,*
- *Euskaliten Patronatua.*

EiTB Taldearen magnitude nagusiak

Lauki honetan, EiTB Taldearen RSEk biltzen dituen dimentsioekin zerikusia duten emaitza nagusiak jasotzen dira, laburpen exekutibo gisa.

Dimentsio ekonomikoa	2015	2016
DIRU SARRERAK OSOAK (propioak + publikoak) (€-tan)	127.518.018	132.023.242
** Diru-sarrera propioak DIRU SARRERA PROPIOAK (€-tan)	17.614.912	13.503.668
** DIRU LAGUNTZA PUBLIKOA (€-tan)	109.903.106	118.519.574
EGITURAZKO KASUAK/GASTU OSOAK	10,20	9,80
BANATUTAKO BALIO EKONOMIKOA (€-tan)	129.099.439	132.018.429
Azken EMAITZA AMORTIZAZIOARIK GABE (€-tan)	3.974,00	28.164,00
INBERTSIO OSOA (€-tan)	5.570.417	5.590.441
AKTIBO OSOA	94.253.692	91.942.521
** Aktibo finkoak	58.211.807	53.663.231
** Aktibo arruntak	36.041.885	38.279.290
PASIBO OSOA	94.253.692	91.942.521
** Ondare garbia	65.820.647	66.727.251
** Pasibo arrunta	28.433.045	25.215.270
AUTOFINANTZAZIOA	58,25	61,8
ZORPETZEA	0,00	0,0
LIKIDEZIA	1,27	1,5
KAUDIMENA	3,31	3,6
SOLDATEN KOSTUA	57.501,53	58.944,80
ETBren SHARE EAEn.	11,60	10,70
** Share ETB1	1,9	1,9
** Share ETB2	8,0	7,3
** Share ETB3	0,6	0,6
** Share ETB4	1,1	0,9
** Share Gaur Egun albistegian	2,7	2,6
** Share Teleberri albistegia	17,1	17,1
LIDERGOA ETB ALBISTEGIAK beste komunikabide batzuen albistegiei buruz EAEn	ETB2 LIDERRA	ETB2 LIDERRA
ENTZULEAK IRRATIAN AI-Or (EAE + NAF)	506.000	480.000
** Radio Euskadi	177.000	171.000
** Euskadi Irratia	149.000	120.000
** Radio Vitoria	31.000	26.000
** Gaztea	119.000	133.000
** EiTB musika	30.000	30.000
METATUTAKO ENTZULE KOP. ETB + IRRATIA (EAE, AI-Ig)	964.000	937.000
ERABILTZAILE BAKARREN KOP. eitb.eus (hileko batez bestekoa)	1.978.729	2.103.751

Dimentsio soziala	2015	2016
BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA	1.002	992
ZUZENDARITZA TALDEAN DAGOEN EMAKUM. KOP. %	28,4	29,3
AURREKONTUA PRESTAKUNTZAN (€-tan)	190.000	166.899,84
PRESTAKUNTZA ORDUAK LANGILEKO	7,22	10,75
EUSKARAZKO HAUR ETA GAZTE PROGRAMAZIOAN ESPEZIALIZATUAK DIREN EDUKIEN ORDU KOP.	8.760	8.784
EUSKARAZKO EDUKIEN ORDU KOPURUA ETB1, ETB3 ETA ETBHDn	20.075	20.068
ZUZKIDURA EKONOMIKOA PUBLIZITATE BIKOIZKETARAKO (€tan)	37.948	37.644
INFORMAZIO eta AKTUALITATE EDUKIEN PROGRAMAZIO ORDUAK ETB1 eta ETB2	4.282	3.935
GORRENTZAKO TB PROGRAMA AZPITITULATUEN ORDU KOP.	6.141	5.114
DOHAINTZAK IKERKETARAKO - EITB MARATOIA	381.473	529.550
NAZIOARTEKO HEDAPENAREN KOSTUA	679.201	657.706
PRESTAKUNTZA EITBn EGITEN DUTEN PERTSONA KOPURUA	134	103
Ingurumen-dimentsioa	2015	2016
PAPER KONTSUMOA (folioak - KG)	17.039	16.737
PINTURA KONTSUMOA	1.264	404
PILA KONTSUMOA (unitateak)	15.824	15.623
DVD KONTSUMOA (KG.)	44	29
CD KONTSUMOA (KG.)	12	5
FLUORESZENTE KONTSUMOA (unitateak)	729	735
ELEKTRIZITATE KONTSUMOA (GJ)	34.177,59	34.914,93
GAS NATURAL KONTSUMOA (GJ)	4.001,39	2.402,58
GASOLIO KONTSUMOA EKIPO ELEKTROGENOETAN (GJ)	62,73	53,02
UR KONTSUMOA, udal ur-horniduratik hartutakoa (M3)	8.960	13.256
BEROTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIO ZUZENAK (CO2 tonak)	409,10	317,72
PAPER HONDAKINAK (KG)	17.160	18.690
CD eta DVD HONDAKINAK (KG)	0	0
HIRI HONDAKINEN HONDAKIN ASIMILAGARRIAK (KG)	43.252	45.022
EKIPO ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK (KG)	1.330,0	370,0
PILA HONDAKINAK (KG)	213	249
FLUORESZENTE HONDAKINAK (KG)	173	380
INGURUMEN INBERTSIOA	92.058	91.978

EiTB Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakundearen Federazioko (FORTA) kidea da, eta erakunde horren bidez zenbait komunikazio- eta erlazio-jarduera egiten ditu Estatuko ikus-entzunezko sistema arautzailearen hedabide eta erakundeekin. Horrez gain, Europako eskualde telebisten elkarteko (CIRCOM) kidea ere bada EiTB, eta beste eginkizun batzuez gain, Europako Batzordearen kontsulta-erakundea da ikus-entzunezko gaietarako.

2. zatia

Gobernu arduratsua

XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Maite Iturbe buru den zuzendaritza-taldeak 2013-2016 Plan Estrategikoa egin zuen, eta hor, kudeaketa-eredua eta helburu estrategikoak berrikustez gain, misio, ikuspegi eta balioetarako formulazio eguneratua ezarri zen:

Misioa

Zerbitzu publikoa gara.
Pertsonentzat lan egiten dugu,
informazio, dibulgazio eta entretenimendu eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa landuz,
euskal kultura sustatu eta **euskararen** normalizazioa eta erabilera sustatuz.

2016ko ikuspegia

Euskal Herrian, **erreferentziatzko komunikazio-enpresa** izaten jarraituko dugu.
Lidergoa daukagu **audientzian eta gizarte-prestigioan**.
Erabateko efizientzia garatzea dugu helburu, **konbergentziaren** bitartez,
gure edukien **ugaritasuna** eta **inpaktuagatik** nabarmentzeko.
Gure hedabidea oso **parte-hartzailea** izatea nahi dugu,
edukietan **“gurea”** eta **“denena”** uztartuz,
eta **eduki arrakastatsuak** eskaini nahi ditugu **entrenimenduko** saioetan.

Balioak

Profesionalak Negozioaren gakoak ulertzen ditugu. Profesional zorrotzak, eraginkorrak eta bizkorak gara. Hobekuntza eta berrikuntza bilatzen ditugu, gero eta emaitza hobeak erdiesteko eta sinesgarritasuna edukitzeko.

Aldaketarako irekiak Aldaketek aukerak ekartzen dituztela sinetsita gaude. Badakigu horrelakoez baliatzen, sormena erabiliz geure burua zalantzan jartzeko, joerak antzemateko eta arriskatzeko gai baikara.

Arduratsuak Egingo duguna esaten dugu eta hartutako konpromisoen arabera egiten dugu. Kudeatzen ditugun baliabide publikoak neurritasunez erabiltzeko konpromisoa hartu dugu. Kode deontologikoa errespetatuz eta emaitzetan gardentasuna eskainiz garatzen dugu lanbidea.

Hurbilak Hementxe gaude. Eskura gaude. Entzun egiten dugu. Gurekin harremanetan jartzen direnei arreta osoa eskaintzen diegu. Hurbiltasuna eta harremana funtsezkoak dira gure marka-nortasunean.

Talde-izaera Proiektua partekatzen dugu. Negozioen arteko sinergiak lortzen ditugu “EITB Taldea” are gehiago izateko. Aurrera egiteko elkarriketan aritzen gara, ekimena azpimarratuz. Lorpenak ospatzen ditugu.

GOBERNU-SISTEMA KORPORATIBOA

EiTBko Zuzendaritza Nagusia

Iñigo Urkullu lehendakariak, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 7ko 7/2013 Dekretuaren bidez, Maite Iturbe Mendialdua izendatu zuen EiTBko zuzendari orokorraren kargurako, 2013ko martxoaren 7an egindako osoko bilkuran Eusko Legebiltzarraren gehiengo osoaren babesa lortu ostean.

EiTB sortzeko 5/1982 Legearen 17. artikulua ezartzen du zuzendari nagusiaren agintaldiak lau urte iraungo duela eta, nolanahi ere, Eusko Legebiltzarraren legegintzaldia bukatuaz bat amaituko dela. Hori gertatuz gero, zuzendari nagusi berria izendatu arte bere karguan jarraituko du.

1) Taldeko eta haren sozietateetako Zuzendaritza Taldea

EiTB Taldeko Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendari nagusia

Zuzendari kudeatzailea

ETBko zuzendaria

EiTB Radioko zuzendaria

Estrategia eta Komunikazioko zuzendaria

Negozio-unitateetako Zuzendaritza Taldeak, sozietateei dagozkienak

Negozio-unitate bakoitzeko zuzendariak osatzen dituzte.

Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza TaldeaZuzendari kudeatzailea

Giza Baliabideen zuzendaria

Sistemen zuzendaria

Ekonomia eta Finantzako zuzendaria

Zuzendari komertziala

Lege Zerbitzuen zuzendaria

Euskal Telebistako Zuzendaritza TaldeaETBko zuzendaria

Albistegien zuzendaria

Produkzioko zuzendaria

Ustiapen eta Ingeniaritzako zuzendaria

Kirolen zuzendaria

Zuzendari artistikoa eta programena

Programazioko zuzendaria

EiTB Miramongo zuzendaria

Zuzendari komertziala

EiTB Radioko zuzendaria

Estrategia eta Komunikazioko zuzendaria

Ikerketa eta Audientzien burua

Radioko Zuzendaritza TaldeaEiTB Radioko zuzendaria

EiTB Radioko zuzendariordea

EiTB Radioko buruzagitza-taldea

EiTB.eus-eko Zuzendaritza TaldeaEiTBnet-eko zuzendaria

Equipo de jefaturas de EiTB.EUS

Zuzendaritza-egitura arlotan eta prozesutan banatzen da.

Zuzendari nagusiari dagokio sozietateetako zuzendariak eta zuzendaritza-taldeak izendatzea, aldez aurretik Administrazio Kontseiluari jakinarazita.

Zuzendariak kargutik kentzeko araubidea horretarako aplikagarria den araudiaren arabera egiten da: abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretua, goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan-lotura arautzen duena; urriaren 28ko 14/1988 Legea, Goren-Kargudunen Lansariei buruzkoa; otsailaren 23ko 130/1999 Dekretua, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldeakideen estatutu pertsonala arautzeko dena; eta Langileen Estatutua.

2) Erakunde publikoko eta haren sozietateetako gobernu-organoak

Honako hauek dira erakunde publikoko gobernu-organoak:

Administrazio Kontseilua

Eusko Legebiltzarrak izendatutako 19 kidek osatzen dute, emandako botoen bi herenen babesa dutela. Legebiltzarreko legegintzaldiaren hasieran izendatzen da.

Hamabost kide parlamentuko ordezkariak duten talde politikoek proposaturiko pertsonen dagozkie, eta lau kide elkarte hauek proposatuta izendatzen dira:

- Euskaltzaindia - Real Academia de la lengua vasca
- Eusko Ikaskuntza - Sociedad de estudios vascos
- Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco
- EAEko sindikatu esanguratsuak
- EAEko kontsumitzaile-elkarteak

X. legegaldiko Administrazio Batzordea 2013ko martxoaren 11n eratu zen, eta 2016ko abenduaren 31n honako hauek osatzen uzten Administrazio Batzordea:

Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria jn.

Luke Uribe-Etxebarria Apalategi jn.

Edorta Arana Arrieta jn.

Elixabete Piñol Olaeta and.

Concha Aretxaga Iturregui and.¹

Iker Merodio Urbaneja jn.³

Maite Sarasua Letamendia and.²

Gorka Angulo Altube jn.

Tontxu Campos Granados jn.

Mikel Unzalu Hermosa jn.⁴

Nerea Llanos Gómez and.

Karmelo Landa Mendibe jn.

Rosa Miren Pagola Petrarena and.

Dña. Beatriz Narbaiza Amillategi

Manuel Allende Arias jn.

Xabier Barandiaran Irastorza jn.

Iñaki Garcia Arrizabalaga jn.

Iñigo Iturrate Ibarra jn.

Alma Fernández Alonso and.

¹ Concha Aretxaga Iturregui andreak Idoia Mendia andrea ordezkatu zuen, eta honek, Carlos Gorostiza jn.

² Maite Sarasua Letamendia andreak Txema Ramirez de la Piscina jauna ordezkatzeko du.

³ Iker Merodio Urbaneja jaunak Juan José Baños jauna ordezkatzeko du.

⁴ Mikel Unzalu Hermosak kargua uztea eskatu zuen 2016-12-26an eta bere postua hutsik geratu zen.

Maite Iturbe Mendialdua⁵ andreak, Administrazio Kontseiluko kide gisa parte hartzen du. EiTB sortzeko legeak Administrazio Kontseiluaren eskumenak zedarritzen ditu. Arlo hauetako oinarritzko gobernu-ildoetan garatzen du bere jarduerak:

- Erakunde publikoaren jarduerak-plana, programazioko oinarritzko printzipioak eta ildo orokorrak biltzen dituenak, bai eta erakundeko sozietateen jarduketak-plana ere.
- Erakunde publikoaren eta haren sozietateen plantilla.
- Negoziario kolektiborako eta erakundeko eta haren sozietateetako langileen ordainsari-erregimenaren onarpenerako irizpide orokorrak.
- Erakunde publikoaren eta haren sozietateen aurrekontua.
- Talde politikoentzako eta talde sozialentzako programazio-ehunekoa.
- Publizitate-emisioa erregulatzen duten arauak.

Administrazio Kontseiluak 2015-2016 aldian izan zuen jarduerarekin zerikusia daukaten alderdiak:

- Gobernuari eta kontrolari buruzko gaiei erantzuteko, Administrazio Kontseiluak bi batzorde eratu ditu: publizitate-batzordea eta barne-araudia egiteko batzordea.
- Administrazio Kontseiluak José Ramón Beloki Guerra jauna eta Rosa María Martín Sabaris andrea izendatu ditu kide aditu independente Eusko Irratia SAUren enplegu-deialdi publikoko ebaluazio-epaimahaian.
- Administrazio Kontseiluko buruak ikuslea defendatzeko erantzukizuna garatu du.
- Administrazio Kontseiluak EiTBko Zuzendaritzak antolatutako zenbait *masterclass* jaso ditu, telebistako programazioari buruz, entzute sozialaren neurketari buruz eta komunikabideen audientziei, gizarte-sareei eta Interneti buruz.
- Administrazio Kontseilua aldizka bildu da urteko hilabete guztietan.
- Kideak kontseiluko bileretara normaltasunez joateko helburua bete da.
- Administrazio Kontseiluak gai-zerrenda eta dokumentazioa ditu, eta normalean errespetatu egin da kontseilua egin baino 7 egun lehenago banatzeko epea. Kontseiluaren akta eskuarki kontseiluaren hurrengo bileran onartu da.
- 2016ko ekainaren 28an EiTBren Administrazio Kontseiluaren barne araudia onetsi zen.

⁵ 2017ko martxoaren 28an, XI. legegaldiko Administrazio Batzordeko kideak sartu ziren gobernu-organora, aurreko legegaldiko kideak ordezkatuz. Administrazio Kontseilua honako hauek osatzen dute:

Manuel Allende Arias jn.
Sofia Arceo Allende and.
Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria jn.
Concha Aretxaga Iturriaga and.
Tontxu Campos Granados jn.
Andoni Etxebeste Iraeta jn.
Diego Gonzalez Moyano jn.
Iñigo Iturrate Ibarra jn.
Andeka Larrea Larrondo jn.
Nerea Llanos Gómez and.

Garbiñe Mendizabal Mendizabal and.
Iker Merodio Urbaneja jn.
Fermin Munarriz Olloki jn.
Beatriz Narbaiza Amillategi and.
Koldo Navascues Simon jn.
Rosa Miren Pagola Petrarena and.
Arantza Rica Alvarez and.
Vanesa Rodriguez Fontaneda and.
Rafaela Romero Pozo and.

Administrazio Kontseiluko kideek ordainsaria daukate, bertaratzeagatiko sari gisa. Administrazio Kontseiluko kideei ordaintzeko partida 106.178 eurokoa izan da 2015ean eta 112.773 eurokoa 2016an.

Zuzendaritza Nagusia

Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari gisa duen erantzukizunaz gain, Taldeko sozietate publikoen administratzaile bakarra ere bada: Euskal Telebista, S.A.U., Eusko Irratia, S.A.U., Radio Vitoria, S.A.U. eta Eitbnet, S.A..U. sozietateena, hain zuzen ere.

EiTB sortzeko legeak erakundea eta menpeko sozietateak kudeatzeko eskumen zabalak ematen dizkio zuzendari nagusiari. Eusko Legebiltzarrari dagokio hori hautatzea, gobernuak proposatuta, gehiengo osoaz eta 4 urteko aldirako. Erantzukizunarekin jarraitzen du zuzendari nagusi berria izendatu arte.

Honako hauek dira sozietate filialen gobernu-organoak:

- **Batzar Nagusia**, EiTB zuzendari nagusiak ordezkaturia, eta
- **Administrari bakarra**.

3) Kudeaketa-sistemak

a) Plangintza estrategikoa

EiTBko Zuzendaritza Batzordeak 2013-2016 aldirako EiTBko laugarren Plan Estrategikoa onartu zuen. Plana bera egiteko Stakeholder-ek parte hartzea komenigarritzat jo zuen. Eusko Legebiltzarrean eta Administrazio Kontseiluan aurkeztu zen eta 2013ko azaroan onartu zen. EiTBko kudeatzaileei eta langileei jakinarazi zaie eta EiTB.eus webgunean argitaratuta dago.

Plan Estrategikoak 8 helburu ezartzen ditu:

1. Zerbitzu Publikoaren eredu izatea, audientzia eta gizarte-prestigio ona bermatuz.
2. Informazio eta aktualitateko gaietan liderrak izatea. Horrek esan nahi du landutako edukiak erreferentziakoak direla, eta EiTBk gizarteari informazioa eskaintzen diola eta jarrera kritikoa sustatzen duela.
3. Euskarazko audientzia indartzea, euskararen gizarte-prestigioa eta erabilera sendotzeko. Horrek esan nahi du euskal komunikazio-gunea sortu behar dela eta horrek publiko berrietara iristeko eskaintza erakargarria landu behar duela. Gainera, euskarari lekua egin behar dio modu naturalean euskarri guztietan.
4. Konbergentzian erreferentziakoak izan behar dugu. Horrek esan nahi du erakundearen kultura profesionala eta antolaketa berrerratu behar direla hedabidea

multimediako euskal komunikazio talde publiko bati eskatu ahal zaion potentzialtasun osora egokitzeko.

5. Denon artean partekatutako ikuspegia lantzea ("GU"). Horrek esan nahi du erakundearen proiektua komunikatu behar dela, urteko gestio-planak taxutu behar direla eta barruko egitura proiektu honen zerbitzura jarri behar dela. Era berean, esan nahi du beharrezko aldaketak egin behar direla araubidean berrikuntza-erronkei ekiteko.

6. Ikus-entzunezko sektore pribatuarekin lankidetzan aritzea ("Gu+BesteGu"). Horrek esan nahi du sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak burutsua bideratu behar dela, euskal ikus-entzunezko sektorea aliatu estrategiko gisa garatu eta industria nahiz talentua sor ditzan, interes handiko formatuak eta edukiak ekoitziz.

7. Enpresa-jasangarritasunarekin konprometituak. Horrek esan nahi du EITBk oraingo eta etorkizuneko erabakiak hartzen dituela diru-sarrerara eta gastuen finantza-orekaren gaineko erantzukizunari jarraikiz. Aurrekoaz gain, administrazioarekiko harreman berriak sustatzen ditu programa-kontratu berri baten esparruan. Bertan zehaztu beharko dira zerbitzu publikoaren nondik norakoak eta haren ezaugarriak, bai eta enpresaren tamaina eta finantzabidea ere.

8. Efizienteak kudeaketa teknologikoan. Horrek esan nahi du EITBk oraingo eta etorkizuneko erabakiak hartzen dituela inbertsioen gaineko zuhertasun-printzipioari jarraikiz, kostu eta errentagarritasunaren arteko emaitza bikaina bermatzearren.

b) Programa-kontratua

Programa-kontratua Eusko Jaurlaritzaren eta EiTbren arteko akordioa da; bertan, bi alderdiek aldi jakin baterako hartzen dituzten konpromisoak ezartzen dira. 2011ko ekitaldian 2007-2010 Kontratu Programa luzatu zuen. 2012 eta 2015 arteko ekitaldietarako eta hurrengoetarako urteko luzapenen bidez kudeatu dira, EAEko aurrekontu orokorrak onartzen dituen Legean urtero aurrekontua ezarri.

2016ko otsailaren 24an Programa Kontratu berria formalizatu zen 2016-2019 aldirako, eta urte anitzeko eredia berrezarri zen.

2016-2019 aldirako Programa-kontratuak EiTbren esku uzten den eginkizuna, zerbitzu publikoarena, jasotzen du eta jarduera horretarako emandako finantzaketa ezartzen da, Europar Batasunak markatutako ildoetatik.

Zerbitzu Publikoaren 9 eginkizun ezartzen ditu:

1. ***Kalitatezko informazioa bermatzea.***
2. ***Euskara eta gero eta elebidunagoa den gizartea sustatzea.***
3. ***Euskal kulturaren eta kirolaren aldeko apustua.***
4. ***Ikus-entzunezkoen industria sustatzea,*** aberastasuna eta ekonomia- eta kultura-onurak sortuz.
5. ***Gizarte-kohesiorako plataforma,*** edukien arloan publizitatea eta hizkuntzaren erabilera orokorra aplikatuz.
6. ***Informazio-gizarteko aktiboa herritar guztientzat.***

7. ***Euskal erakundeek onartutako Bake eta Bizikidetza plana bere egitea.***
8. ***Aurrerakuntza ekonomikoko eta normalkuntzarako plan eta jarduera instituzionalak garatzen laguntzea.***
9. ***Gobernu arduratsuaren eta enpresa-gardentasunaren printzipioak aplikatzea eta gizarte zibilak parte hartzeko esparruak eskaintzea.***

Horiek garatzeko, Programa Kontratuak EiTbren konpromisoak eta Gobernuaren Konpromisoak ezartzen ditu.

EiTbren konpromisoak: 11 konpromiso ezartzen ditu.

1. konpromisoa: telebista, irrati eta Interneteko kateak sortzea eta horien profilak nahiz esparrua zehaztea.
2. konpromisoa: zerbitzu publikoa aro digitalera zabaltzea (Internet).
3. konpromisoa: kalitate oneko informazioa bermatzea.
4. konpromisoa: euskara sustatzea eta euskal gizarte elebidun baten normaltasuna bultzatzea.
5. konpromisoa: euskal kultura zabaltzea.
6. konpromisoa: euskal kirola sustatzea.
7. konpromisoa: ekonomia berrindartzeari, enpleguari, ikerkuntzari, autogobernuari, gizarte-kohesioari eta printzipioen nahiz balioen zabalkundeari buruzko ekimen instituzionalak sustatzea.
8. konpromisoa: euskal erakundeek onartutako Bake eta Bizikidetza Planeko ekimen instituzionalak bere egitea eta sustatzea.
9. konpromisoa: ikus-entzunezkoen euskal industria sustatzea eta kultura- nahiz sormen-industrien bultzatzaile izatea.
10. konpromisoa: teknologia berritzeko inbertsioak egitea ekoizpen-sistemetan ekoizpenaren kalitatea eta ahalmena areagotu ahal izateko eta banaketa-estandar aurreratuak edukitzeko.
11. konpromisoa: kudeaketa aurreratuko eta gobernu arduratsuko printzipioak aplikatzea.

Eusko Jaurlaritzaren urte anitzeko konpromisoak: i) ustiapen-gastua konpentsatzeko esportazioak, ii) ibilgetuko inbertsioak finantzatzeko ekarpenak, iii) Europako zinema-lanetan nahitaez finantzatzeko ekarpenak eta iv) berariazko jarduera osagarriak.

EiTbren eta haren sozietateen finantza-erregimena mistoa da. Programa-kontratuan finantza-ekarpen publikoaren munta ezartzen da, eta balantze ekonomikoek ez defizitik ez zorpetzerik ez sortzera behartzen du.

Berezko finantzaketa publizitatearen salmentagatiko sarreraren eta beste sarrera batzuen menpe dago. Beraz, urteko ustiapen-aurrekontua finantzaketa misto horretan oinarrituta ezartzen da, eta gastuak ez du inoiz sarrera baino altuagoa izan behar.

c) Negozio-planak

Taldeko sozietate guztiek negozio-plan bat dute, EITB taldearen estrategiarekin bat datozen urteko helburuak lortzeko.

Negozio-planetan kudeaketa-arlo nagusiekin zerikusia daukaten helburuak garatzen dira. Adierazleen egitura audientziari, zerbitzu publikoko irudiari, sarreren eta gastuei, errendimendu operatiboei buruzko helburuei eta politika estrategikoei lotutako beste batzuei zor zaie.

d) Arrisku-kudeaketa

Arrisku-kudeaketaren esparruan, EITBk Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoetarako ezartzen dituen eskakizun guztiak betetzen ditu.

EITB taldeak arriskuak kudeatzeko eta barne-kontrolerako sistema bat ezarri du, honako helburu hauek betetzeko segurtasun-maila egokia bermatze aldera:

- Helburu estrategikoen garapena eta jarraipena.
- Eragiketen eraginkortasuna eta efizientzia.
- Informazio finantzario eta operatiboaren fidagarritasuna.
- Aktiboen babesa.
- Politika, prozedura, lege eta arau aplikagarrien betetzea eta erdiespena.

Arrisku-mapa bat dauka. Sistemak berrogeita hamahiru arrisku biltzen ditu, eta horien artean hauek dira funtsezkoenak:

1. Arrisku penalaren erregulazio berria (Compliance).
2. Hirugarrenentzako *reporting*-ak, arautzaileak eta instituzionalak.
3. Partaidetutako enpresek egindako ekintzen ondoriozko eragin negatiboa.
4. Egokitzapena kanpo-faktoreetan gertatzen diren eta diru-sarrerak gutxitzen dituzten aldaketen aurrean.
5. Langileen hautaketa.
6. Langileen kontratu-harremana.
7. Ezarritako ordainketa-prozeduren egokitzapena.
8. Zerbitzuak eta produktuak kontratatzeke araudiaren betetzea.
9. Egile-eskubideen kudeaketa.
10. Sistemen egokitzapena emisioek huts egiten badute edo eteten badira.
11. Publizitateari buruzko legeriaren betetzea.
12. Publizitate-galeraren eragina.
13. Aurrekontuaren betetzea.
14. Eduki-eskaintza egokia.
15. Helburu estrategikoak.
16. Lan-arriskuei aurrea hartzeko politiken egokitzapena.

Sistemari buruz egindako azken auditoretza Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2014. urtean egindakoa da.

e) Compliance

2016. urtean zehar arriskuak aztertzeko eta EITB Taldeko enpresek hartu beharreko prozedura-neurriak aztertzeko proiektua abian jarri da. Hain zuzen prebentzio-sistemak arautzeko eta garatzeko da, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 lege organikoa aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 lege organikoaren bidez, legez garatu den pertsona juridikoen erantzukizun penalaren esparru berriaren aurrean.

2017ko ekitaldian eraginkortasunez ezartzea aurreikusita dago.

4) 2015-2016ko gertaera garrantzitsuak

- a. 2014ko apirilaren 29an, Administrazio Kontseiluan, Eusko Irratia SAko kontratu mugagabe ez finkoen egoera araupetzeko erabakia hartu zen. Horretarako, enplegu-deialdi publikoa egin zen plantillako 49 plaza sortzeko eta 30 plaza amortizatzeko.

Estatuko Administrazioak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen administrazio-jarduketa horren aurka. EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salaren 2015eko otsailaren 19ko ebazpenak, Eusko Irratia SArek izaera juridikoa aintzat hartuta, auzia lan-arloko jurisdikzioari dagokiola erabaki zuen; beraz, errekurtsoa sala horretan artxibatu eta lan-arloko auzitegira bidali zuten. EAEANK, 2016ko abenduaren 21eko epai irmoan, aipatutako administrazio-egintzaren legezkotasuna onartu zuen.

EAEANren 2015eko maiatzaren 5eko epai irmoan ere bai, legezkotasuna berretsi zen, eta enplegu-deialdi publikoaren kudeaketa-prozesua zuzenbidera egokituta geratu zen (deialdiaren oinarrian, ebaluazio-epaimahaiaren eraketa eta hautaketa-prozesuaren kudeaketa).

- b. Auzitegi Gorenaren 2014ko apirilaren 29ko aipatutako akordioari dagokionez, akordio horren ondoren, 2014ko ekainaren 24ko epaiaren arabera, bere irizpidea zuzendu zuen. Horrela, Lan-arloko Salaren Osoko bilkuraren epaitik aurrera, administrazio publikoak langile mugagabe ez finkoak betetzen duen lanpostua amortizatzen duenean, banakako edo taldeko kaleratzeetarako oro har Langileen Estatutuak ezartzen duen prozedura berberari jarraitu behar zaio. Auzitegi Gorenaren aipatutako epai horren egunera arte, hori ez zen legez bete behar zen prozedura.

Horren ondorioz, 2015eko urtarrilaren 16an, enplegu-deialdi publikoaren hautapen-prozesua zeharo bukatutakoan eta behin betiko zerrendak onartutakoan, Zuzendaritzak kaleratze kolektiboko prozesua hasteko aurreabisua jakinarazi zien Administrazio Kontseiluko kideei eta langileen legezko ordezkariari, mugagabe ez finkoak ziren, lanpostua amortizatu behar zitzairen eta 49 plazatarako enplegu-deialdi publikoan plaza finkorik lortu ez zuten profesionalei dagokienez.

- c. Kaleratze kolektiboko prozesuaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen justizia auzitegietan. Lehen auzialdian enpresaren aldeko epaia izanda eta Auzitegi Gorenean errekurtsoa jarrita, Lan-arloko Salaren 2014ko ekainaren 24ko epaian, arrazoi ekonomikoengatik gertutako desagertze prozesua zuzenbideari egokitu zitzaiola berretsi zen.

- d. 2016ko martxoaren 3an, Auzitegi Gorenak 2010eko uztailaren 1etik aurrera ETB SAUko hitzarmeneko langileen % 5eko soldata murrizketa ez zela bidezkoa ebatzi zuen, eta maiatzaren 20ko 8/2010 Errege-lege dekretuan eragin zuen. Beste epai batzuek neurria beste sozietate eta talde batzuetara zabaldu du.
- e. 2016ko maiatzaren 10ean Nafarroako Foru Erkidegoak eta Euskal Autonomia Erkidegoak Lankidetzarako Protokolo Orokorra sinatu zuten. Horri esker, Elkarlanerako Hitzarmena jarri zuten abian, 2016ko uztailaren 5etik aurrera EiTbren seinalea Nafarroan hedatzeko. 2016ko irailaren 7an, Nafarroako Gobernuak aldaketak egitea adostu zuen Nafarroako Foru Erkidegoko LTDko multiplex autonomikoan eta lokalean, eta liberatutako espazioak EiTbrentzat erreserbatzea. 2016ko irailaren 22an EiTb LTD bidez igortzen hasi zen berriz Nafarroan.
- f. 2015eko abenduan Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak EITBNET SAUren lehen hitzarmen kolektiboa erabaki eta sinatu zuten.

KODE ETIKOA

EiTb sortzeko legeak erakunde publikoko eta haren sozietateetako zuzendaritza-taldekideen bateraezintasunak jasotzen ditu. Halaber, gobernu-organoak Eusko Jaurlaritzaren bateraezintasunari buruzko legearen menpe daude.

Goi-karguen eta gobernu-organoen izendapena, aldezturik, bateraezintasun-araubiderako ezarritako kontrolaren menpe jartzen da.

1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/08/1403439e.pdf>

13/2013 EBAZPENA, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako honako erabaki hau argitaratu emateko dena: «Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea onartzen duena».

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/06/1302551e.pdf>

130/1999 Dekretua, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzeko dena.

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1999/03/9901312a.pdf>

Zuzendari nagusiak, ETBko zuzendariak, zuzendari kudeatzaileak eta EiTb Radioko zuzendariak, 2013ko ekainean, *Etika eta Jokabide Koderako Atxikipenaren Adierazpena* sinatu zuten. ETBko zuzendaritzan, kargua utzi duena ordezkatzeko duen zuzendari berriak 2014ko abuztuan sinatu zuen aipatutako adierazpena. Era berean, denek erregistratu dute ondasun-aitorpena.

KONTROL ORGANOAK

Ezarritako kontrol-organoei dagokienez, derrigorrezkoak eta borondatez ezarri ditugunak bereizten ditugu:

a) Legez ezarritako kontrol erakundeak eta derrigorrezkoak:

Aurrekontuaren kontrola

EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen bidez egiten da. Azken hori Eusko Legebiltzarrak onesten du, EiTBko Administrazio Kontseiluak adostu ondoren.

Aurrekontuak aurrekontu-orekaren printzipioari jarraiki egiten dira.

EiTBren Kontrolerako Legebiltzar Batzordea

Legebiltzar Batzordeak kontrolerako eskumen gorenenak ditu, EiTBri zerbitzu publiko gisa emandako funtzioa betetzen dela bermatzeko.

Jarraipena eta kontrola parlamentuko ahozko eta idatzizko galderen bidez, dokumentazioaren bidez eta zuzendari nagusiaren eta beste edozein kargu profesionalen agerraldien bidez egiten dira, norberaren edo Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, edo Legebiltzarrak berak egindako ekimenez.

Administrazio Kontseilua

Gobernu-organoa denez, kontrol-funtzio batzuk bete behar ditu, bereziki, ekonomiaren kudeaketari, langile-zerrendaren dimentsionamenduari, negozioazio kolektiboari eta, edukien arloan, EiTB sortzeko Legearen inspirazio-printzipioak betetzeari dagokienez.

Programa-kontratuaren Jarraipen Batzordea

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako (X. legealdia) sailburua eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (XI. legealdia) dira organo honen buruak, eta EiTBren aldetik, zuzendari nagusia.

2016-2019 Programa Kontratuan ezarritako adierazleek EiTBko agente-koadroa kontuan hartu du. Emaizak Administrazio Kontseiluan berrikusten dira lauhileko bakoitza amaitutakoan, eta ekitaldia amaitutakoan, gauzatze-txosten batekin, Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordeari igortzen zaizkio.

Organo honi dagokio Programa Kontratuan hartutako konpromisoak betetzen diren ebaluatzea, Programa Kontratuaren klausuletan ezarritako sistemaren arabera.

Negoiazio kolektiboaren gaineko kontrola

Hitzarmen kolektiboen negoziazioan Eusko Jaurlaritzako negoziatio-zuzentarauen esparrua errespetatzen da. Zuzendaritzaren aurre-hitzarmena sindikatuarekin amaitu ondoren, Ogasun eta Herri Administrazioaren Sailera bidaltzen da, Kontrol Ekonomikoaren Bulegoa eta Negoiazio Kolektiboa izeneko zuzendaritzetan kontrola dezaten.

EiTBren, ETBren eta Radioren hitzarmen kolektiboak, gaur egun indarrean daudenak, 2009an negoziatu eta sinatu ziren, eta haien indarraldiak urte horretako abenduaren 31ra arte iraun zuen. Automatikoki luzatu da, eta 2013an ultraaktibitatea sinatu zen; beraz, hitzarmenok lan-erreformaren ostean ere indarrean jarraitzen dute.

2015eko abenduan EITBNET SAUren lehen hitzarmen kolektiboa erabaki eta sinatu zen.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren nahiz funts publikoak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa fiskalizatzeaz arduratzen den organoa da.

Epaitegiak Eusko Legebiltzarrak eskuordetutako funtzioak betetzen ditu, independentzia osoz jarduten du eta diru publikoaren erabilera eta kudeaketaren legezkotasun, arauketa eta eraginkortasunari buruzko iritzia eman behar du.

Epaitegi honek aldizka ikuskatzen du EiTB. Gainera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea betetzen ote duen zaintzen du bereziki, obra, ondasun eta zerbitzuen kontratazioa arautzen baitu lege horrek.

2015ean eta 2016an auditoretza bana egin da obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko eta Euskal Telebista SAko langileak kontratatzeko prozesuei buruz, hain zuzen ere 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagozkien buruz. 2017ko otsailean 2015. urteari dagokion txostena argitaratu dugu.

Txosten horiek Eusko Jaurlaritzara, Eusko Legebiltzarrera eta Estatuko Kontuen Epaitegira bidaltzen dira. Azken txostena EiTBren gardentasun-atarian eskuragarri dago, eta auditoretza guztien txostenak erakunde horren webgunean dauden herritarren eskura: www.tvcp.org

Urteko kontuen ikuskapena

KPMG izan ere EiTBren eta bere sozietateen urteko kontuen ikuskapenatarako adjudikatutako erakundea 2013-2015 ekitaldietarako. 2016-2018 aldiko urteko kontuen ikuskapenak PKF ATTESTi esleitu zaizkio.

2015eko ekitaldiko ikuskapenak salbuespen bat izan zuen. 2010eko ekitaldian Taldeko sozietateen langileei aplikatutako % 5eko soldata-murrizketa konstituzio-kontrakoa deklaratu zuen Konstituzio Auzitegiak 2015eko ekitaldian. 2016ko apirilaren 4an Auzitegi Gorenaren 2016ko martxoaren 3ko epaia jakinarazi zioten EiTBri. Epaia horretan, soldata-murrizketa hori zuzenbidearekin bat ez zetorrela deklaratu zen, eta soldata itzuli behar zuela. Ikuskapen-txostenaren balioespenen arabera, 2015eko galera eta irabazien kontuetan 5,5 milioi euroko aurreikuspenak jaso behar ziren. Hala ere, enpresak 2016. urtean soldata-igoera eta atzerakinak ordaindu ahal zituen, AGren epai irmoan ezarritakoa zuzen aplikatuz.

Memoria hau idazten amaitutakoan (2016ko apirila) 2016ko urteko kontuak egin dira. Ikuskapen-txostena PKF ATTESTek egin du, Administrazio Kontseiluari epe barruan aurkeztu zaio ez du salbuespenik.

b) Plan Estrategikoen barruan borondatez gain hartutako kontrol eta ebaluazio metodoak:

EFQM ebaluazioa, enpresen kudeaketari eta lortutako emaitzei buruz

EiTB taldeko zuzendaritzaren bikaintasunaren ikuspuntuarekin bat, 2004tik aurrera 3 kanpo-ebaluazio egin dira, euskal eta nazioarteko erakundeetako zuzendaritza-taldeekin barne-ikuspegia egiaztatu ahal izateko. Urte hauetan zehar, EiTBk enpresa-bikaintasunaren funtsezko zortzi kontzeptuak indartu ditu: Emaitzetara zuzendutako orientazioa – Bezeroari zuzendutako orientazioa – Lidergoa eta koherentzia – Prozesu eta gertaeren araberako kudeaketa – Pertsonen garapena eta inplikazioa – Ikaskuntza, berrikuntza eta hobekuntzako prozesu jarraitua – Itunen garapena – Erakundearen gizarte-erantzukizuna.

EiTB taldeak honako aintzatespenak jaso ditu Eusko Jaurlaritzaren eta Estatu eta Gobernu Buruen Goi Bilera Iberoamerikarraren eskutik: *Zilarrezko Q*, Kudeaketaren bikaintasunagatik (2004); *Kalitatearen sari iberoamerikarra* (2006); *Urrezko Q*, Kudeaketaren bikaintasunagatik (2007); eta EFQM saria, “Continuous Learning, Innovation & Improvement” (Brusela, 2009).

Kudeaketa-sistemenen ikuskapenak

Osasun eta Lan Prebentzioaren Sistemari gagozkiola, EiTBk 2005. urtetik kanpo eta barne ikuskapenak egiten ditu EiTB taldeko sozietate guztietan OHSAS nazioarteko arauari jarraiki. Horrek bermatzen du EiTBk indarreko legeria aplikagarria betetzen duela eta kudeaketa sistema zorrotzagoa duela enplegatuen segurtasuna eta taldearen instalazioetan jarduten duten enpresa azpikontratatueta langileena ere babesteko. Era berean, lan arriskuak prebenitzeko sistemaren azken arauzko ikuskapena, legez lau urterik behin egin beharrekoa, 2004ko maiatzekoa da.

Gainera, 2001. urtetik ISO 9001 delakoaren bidez ziurtatuta daude EiTB taldearen kudeaketa-sistemako prozesuak, eta, horrenbestez, erakunde publikoko langile guztiak eta horiek kudeatzen dituzten sistemak kalitateko arauaren parametroen araberakoak dira. ETB, S.A. etxearen eremuan, kalitate-sistemaren barruan sartzen dira Miramongo Produkzio Zentroan nahiz Unitate Mugikorrek egiten den kanpo-ekoizpenean prestatutako telebista programak.

2012tik ingurumen-kudeaketako sistema ziurtatuta dago, ISO 14000 arauari jarraiki, EiTB Taldearen sozietatearen egoitzarako (EiTB, ETB, Eusko Irratia eta EITBNET sozietateak daude bertan kokatuta).

Ziurtapenen hasieratik, kanpoko enpresa ikuskaria AENOR da. Horrez gain, EiTBk barneko ikuskapen taldea dauka, ISO 9000, ISO 14000 eta OHSAS 18000 arauetan prestatutako dagoena. Zeregin hori modu independentean eta altruistan betetzen duten erakunde barneko hamar profesional baino gehiago dira, diziplina askotarikoak.

2015ean eta 2016an AENOREk EiTBri eta haren sozietateei OHSAS 18000, ISO 9001 eta ISO 14000 arauen hiru ziurtagirien gainean egindako ikuskapen-txosten guztiak kontuan harturik, zuzen zuzendu dira, neurri zuzentzaileak eta prebentzio-neurriak aztertuz, zeuden bi



ENPRESAREN GOBERNUARI BURUZKO TXOSTENA

desadostasunak. Ondorioz, aplikatzen diren kudeaketa-sistemak solidoak direla eta behar bezala finkatuta daudela esan dezakegu.

3. zatia

EiTBren gizarte-erantzukizuneko eredua

EiTBren GEK eta Plan Estrategikoa

2009ko maiatzeko EFQMren azken kanpo-ebaluazioan, ideia, tresna eta praktika onei buruzko zatian, adierazleei buruzko gomendioak honakoa dio: *“EiTBk zehatz-mehatz definitu du EiTB+ Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren ikuspegia. Ikuspegi horrek bat egiten du bere estrategia-planarekin eta stakeholder nagusiak –alegia, Eusko Jaurlaritzak– espero duenarekin, ikus-entzunezko industria eta eskualdeko erkidegoan antolatzen laguntzeari dagokionez.”*

Data horietatik aurrera, EiTBk lau berrikuspen ziklo bete ditu, gizarte erantzukizunaren eredu sektore publikoak krisialdi ekonomikoaren testuinguruan bizi duen ziklo ekonomikora egokitzeko asmoz. Ildo horri jarraituz, nabarmentzekoa da 2009. urtea EiTBren aurrekontu zuzkidurarik handieneko ekitaldia izan zela eta ekitaldi horretatik aurrera EiTBren aurrekontua arian-arian txikitu dela bai finantzazio publikoa murriztu delako bai publizitate salmenta jaitsi delako.

2009ko apirilean, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak “Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakunde, Sozietate eta Fundazioen Gobernu Arduratsurako Gida” betetzeko beharra ezarri zuen. Bertan, Gobernu Korporatiboarekin eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboarekin lotutako gaiak jorratu ziren, horiek bateratzean sortzen baitzen Gobernu Arduratsuaren kontzeptua. Horrek ezartzen du enpresa publikoek lidergo rola bete behar dutela bi fasetan aplikatu beharreko neurrien bitartez: 2009ko abenduaren 31 baino lehen gidan *oinarritzko maila* gisa definitutako neurriak eta 2010eko abenduaren 31 baino lehen *maila aurreratu* gisa definitutakoak.

2013an zehar, Eusko Jaurlaritzak, gobernu oneko, gizarte-erantzukizuneko eta arrisku-kudeaketako politikak eta sistemak euskal sektore publikoko enpresetan zein mailatan ezartzen ari ziren jakite aldera, Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde publiko eta merkataritza-sozietate guztiak ikuskatu zituen.

Ikuskaritza alde aurretik ezarritako eta 2009ko ekitaldian enpresa-sektore publiko guztiari jakinarazitako gida batean oinarritu zen, hiru urtetara ezartzeko eskakizuna jasotzen baitzuen. Eusko Jaurlaritzaren aginduz PKF ATTEST enpresak egindako gobernu arduratsurako giden betetzea egiaztatzeko txostenean, EiTB Taldeak batez bestekoak baino toki hobea lortu zuen hiru arloetan, eta gizarte-erantzukizunean gailentzen den enpresa gisa ebaluatu zuten.

Bai EiTBren hirugarren Plan Estrategikoa (2010eko apirilekoak), bai azkenak (2013ko azarokoak) konpromisoa baieztatzen dute; izan ere, EiTBk **Gobernu Onean** eta **GEKn** sektore publikoko erreferentziazko enpresa izan behar duela ezartzen dute.

EiTBren gizarte erantzukizuna kudeaketa-eredu batekiko konpromisoa da; horren arabera, euskal gizarteak EiTBn egindako inbertsio ekonomikoak nahitaezko itzulketa izan behar du bai gizarteari eskainitako komunikazio eskaintzaren bidez bai EiTBk euskal gizartearekin eta gizarte eragileekin erlazionatzeko izan beharreko jokabidearen bidez. Horrenbestez, ikuspegi horrek hiru ezaugarri izan behar ditu:

1. ... **EiTBko Estrategiaren ildokoa izango da.** Zeregina EiTBk gizarteari egiten dion ekarpenaren balioa are gehiago indartu eta azaleratzea izango da.
2. ... EiTB markaren nortasuneko **balioen isla: gardentasuna, hurbiltasuna, sinesgarritasuna, sormena, izaera tokikoa eta orokorra, eta multimedia.**
3. ... **lankidetzakoa**, gizarte eragileekiko eta stakeholder-ekiko aliantzetan oinarrituko dena, gizartearekiko sare zabala ehuntzeko bideak jorratuz.

Stakeholder-ekiko erlazio etengabeko ikuspegia

EiTBk beste enpresa eredu batzuen aldean gizarte erantzukizunean duen berezigarrietariko bat da Stakeholder-ekin erlazionatzeko modua.

2005ean enpresek hainbeste erabiltzen zuten inkesta sistema bazter uztea erabaki zen, eredu horrek erantzuna neurri handi batean aurreirudikatzen zuela uste zelako. Irtenbide aurreratuagoak prestatu ziren, harremanen arlokoak, solasaldia/entzunaldiaren formatua gehiago sustatuz. Gauzak horrela, orain arte kontraste zehatzerako 5 saio egin dira:

- 2008ko ekainaren 5ean: lehendabiziko world kafea
- 2009ko maiatzaren 18an: bigarren world kafea
- 2011ko maiatzaren 31tik ekainaren 13ra bitartean: EiTB+ari buruzko solasaldi publikoa.
- 2013ko maiatzetik irailera: Plan Estrategikoa prestatzea, *Stakeholder*-ekin.
- 2016ko urtarril-martxoa: elkarriketa sakonak Stakeholder/analista batzuekin EiTBk sortzen dituen gizarte-balioko ardatzak berrikusteko eta bateratzeko.

Lehendabiziko bi aldietan bi orduko topaketa fisiko bat izan zen; guztira ehun pertsona baino gehiago bildu ziren. Bi heren gutxi gorabehera kanpoko stakeholder-en ordezkariak ziren eta heren bat EiTBko ordezkariak eta kudeatzaileak. *World kafearen* metodologiak modu egokian egituratutako gai zehatzei buruzko elkarriketa eraginkor eta argia ahalbidetzen du, pertsona askoren artean gai horiei buruz eztabaidatu ahal izateko. Saio bakoitzak solasaldia, entzunaldia eta ondorioak ahalbidetzen zituen eta abagune ezin hobeia izan zen Stakeholder-en panela berrikusteko eta eguneratzeko.

2011ko udaberrian solasaldi publiko batean parte hartzeko Stakeholder-en azken gizarte panela eguneratu zen. EiTB.COM bidez, irrati-kateen bidez, telebistako magazinaren bidez eta berrikuntza gisa, Twitterren bidez egin zen, #EiTBplus hahstag-ekin.

Diskurtso bateratua lortzeko, komunikabide guztietan aldi berean egituratutako eztabaida baten bidez, egutegi bat finkatu eta EiTBko hedabideetan jorratu beharreko gaiak zehaztu ziren, Twitter-en eztabaida sortze aldera. Kanpaina mediatiko hau 2011ko maiatzaren 31tik ekainaren 13ra bitartean eraman zen aurrera. Orobat, *Stakeholder*-en panelak egunero-egunero newsletter bat jasotzen zuen, eztabaidaren giltzarriak islatuz. Kanpaina amaituta, ondorioei buruzko txosten bat prestatu eta hedabideetan haren berri eman zen.

2013an, Plan Estrategikoa egiteko fasearekin batera egin zen. EiTBren egitekoari eta erronkei buruzko eztabaidan barneko eta kanpoko langileek parte hartu zuten. *Stakeholder*-en ikuspegitik, kanpoko gizarte-ordezkariekin bi talde fokal eratu ziren, talde fokal bat ikus-entzunezkoen sektore independenteko ekoizpen enpresekin eta talde fokal bat langileen ordezkariekin. Era berean, Plan Estrategikoa Administrazio Kontseiluan eta Eusko Legebiltzarreko EITBren Kontrolerako Batzordean eztabaidatu zen. Aipatutako foku-taldeen gain, beste batzuek zuzendaritza-taldekideekin eta profesionalekin lan egin zuten.

2016. urtean EiTBk Stakeholder-en sentikortasunak islatzen zituzten hogeita hamar ordezkari eta analisten lagin bat aurkitu zuen, EiTBk sortutako balio-aldagai nagusiak zein diren ikertzeko

eta zein den kuantifikazio-metodologia jakiteko, ekonomia- eta gizarte-zientzien berezko printzipioak aplikatuz.

Azterlan hau Deustuko Unibertsitateko eta EHUKo ikertzaileei eskatu zien EiTbK, EiTbren gizarte-balioari buruzko azterlan orokor baten barruan. Horren ondorioak 2017. urtean izango ditugu. Diseinuan bertan gizarte-elkarrizketa zabala proposatu zen Stakeholdersekin, GEKen kudeaketaren ikuspegitik ziurtatzeko.

Stakeholdersekin izandako elkarrizketaren ekarpenak (2016)

Stakeholdersekin egindako elkarrizketetan oinarrituz, ikertzaileek 18 aldagai generiko aurkitu dituzten EiTBrako, eta horietako batzuetan balioaren beste azpialdagai batzuk ezartzen dira. Batzuk argi kuantifika daitezke; beste batzuek, balio kualitatiboa ematen dute, eta beste batzuk zaila da neurtzea, baina EiTbtik kanpoko gizarte-eragileek identifikatu izana ulertzen da.

Hala ere, txosten hau idatzi dutenen ikerketa-lana kalterik egin gabe, oraindik ikerketa-fasean dagoelako, eta beraz, ondorioen zain, EiTbren gizarte-balioen ardatzak islatzen dituen aldagaiek lauki sintetiko bat eman daiteke:

1	EUSKADIKO KOMUNIKAZIO EREMUA	1a. Euskadiko gertaerak eta pertsonak ikustea (protagonistak/kazetariak/politikariak)
		1b. Euskadiko tradizioak, kirolak, kultura eta musika adierazpen berriak ikustea.
		1c. Informazioa eta kontakizun propioa eraikitzea herrialdearen ikuspegitik.
		1d. Informazio orokorra igortzea eta ulertzea erreferentzia-esparru propio batetik.
2	MEMORIA HISTORIKOA	2a. Norberaren edukiak sortzea.
		2b. Dagoen ikus-entzunezko materiala digitalizatzea eta sailkatzea.
3	EUSKADIKO BEREZKO KULTURA ETA GERTAERAK NAZIOARTEKOTZEA	3a. Diasporarekin komunikatzea.
		3.b. Aldi baterako atzerriratuekiko harremana (ikasleak eta enpresetako langileak atzerrian).
		3c. Euskadiren irudi positiboa atzerrian
4	ENTRETENIMENDUA	4a. "Unibertso Euskalduna".
		4b. Haurrentzako programak euskaraz.
		4c. Euskal ezaugarri bereizgarriko programak (abentura, umorea, ingurua ezagutzea...).
5	EUSKARA	5a. Euskararen sustapena.
		5b. Euskararen erabilera praktikoa errealitatearen hainbat esparrutan (zientzia, literatura, kirolak, fikzioa...).
		5c. Euskararen normalizazioa.
		5d. Dauden euskalkiak aztertzea.
6	NORMALIZAZIOA ERKIDEGOKO BI HIZKUNTZETAN	6a. Euskararen hastapenak erdaldunentzat.

7	ONDASUN ERKIDEARI ORIENTATUTAKO BALIOAK	7a. Kohesioan (lurraldekoa eta soziala) eta euskaldunen gizarte-ongizatean laguntzen duten balioak sortu, hedatu eta sustatzen ditu.
		7b. Gizarte-erakundeek sortutako balioa igortzen du.
		7c. Enpresek sortutako balioa igortzen du.
8	EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKOEN INDUSTRIA SUSTATZEA	8a. Erosketa publikoaren bidez sustatzea.
		8b. Elkarlaneko ekoizpen-eredua.
		8c. Geroago komertzializatu daitezkeen programa berriak sortzea.
		8d. Euskaraz egindako ikus-entzunezko industriari laguntzea.
		8e. Programen nazioarteko salmenta.
9	ERAGIN POSITIBOA BESTE KOMUNIKABIDE BATZUETAN	9a. EiTbtik hartutako berriak ematea.
		9b. Beste komunikabide orokorrako batzuek Euskadirekin zerikusia duen komunikazioari tratamendu berezia ematea eragiten du.
		9c. Iparraldeko eta Nafarroako hedabideekin lankidetzan aritzea.
10	LANPOSTUAK MANTENTZEA	10a. Zuzenekoak
		10b. Zeharkakoak
		10c. Bekak eta praktiketako kontratuak
11	HEZKUNTZA TRESNA	11a. Hezkuntza informaleko tresna, herrialdeko hezkuntza-politiken osagarria dena.
12	KUDEAKETA ESTRATEGIA/TRESNEN ERABILERA, PERTSONEN PARTAIDETZA AKTIBOA ERAGITEN DUTENAK	
13	HERRITARREN AHALDUNTZEA BERAIEEN PARTAIDETZA POLITIKORAKO	
14	EUSKAL ENPRESA SUSTATZEA	14a. Berriazko komunikazio-tresna euskal tokiko enpresetarako.
		14b. Jolas- eta kultura-industria sustatzea.
		14c. Babesleen etekina hobetzen du.
15	TALENTUA ESORTATZEA	15a. Euskal sortzaileak beste produkzio-etxe batzuetan, hedabideetan, zineman egotea...Euskaditik kanpo lan egiten dutenak eta euskal profesionaltzat hartzen direnak.
16	BESTE TELEBISTA BATZUETARA ERAMANDAKO BALIOA	16a. Baterako erosketa.
		16b. Publizitate salmenta orokorra.
		16c. Eskubideen baterako defentsa.
17	IKUS ENTZUNEZKO EKIMENEN MINTEGIA	
18	ERAKUNDEEI ETA INDUSTRIARI LAGUNTZEA ETA AHOLKATZEA	18a. Know-how igorpen altruista (ez merkatua) erakundeei eta produkzio-etxeei.
		18b. Ikastetxeei eta GKEei ekipamendua lagatzea.

Stakeholder-ekin egindako topaketa hauen guztien helburua honakoa izan da: gizartearen agenteei entzutea zeintzuk diren gizarte erantzukizuna garatzeko ezartzen dituzten lehentasunak eta esku hartzeko gaitasuna ematea ekintza ildoan aukeraketan. Hori da Stakeholder-ekiko harremanaren helburu nagusia, EiTbren ikuspuntuaren funtsezko ezaugarria eta EiTb Stakeholder-ekiko duen konpromisoa.

Horren bidez, EiTbren hiru balio sustatu nahi ditugu:

- *Hurbilak*: presente gaude; eskura gaude eta euskal gizarteko gauza orokorekiko konpromisoa dugu.
- Gardenak: gizarte-erantzukizunean hartutako konpromisoekin.
- *Elkarlanean*: hainbat komunikazio eta erlazio euskarri eraginkor erabiliz.

GEKen dimentsioak eta irismena.

EiTBk, hasieratik, gizartearen eskariei arreta emateko eta zerbitzu publikoa eskaintzeko bokazio argia izan du. Zuzendaritza-talde guztiak errealitate honekiko sentikorrak izan dira.

Identifikazioa

Materialtasun-irizpidea kontuan hartuz, 2008an egindako eta lau berrikuspen-ziklotan (2009, 2011, 2013 eta 2015) balioetsitako gogoetak irizpide eta testuinguru bat sortzea ahalbidetu du, EiTBren gizarte-erantzukizunak barne hartzen dituen ekimenen multzoari zentzua emateko. Horretarako, sei dimentsio ezarri ditu:


1. dimentsioa: Herritarrekiko konplizitatea sortzea. Horretarako, gizarte-talde desberdinek dituzten balio- eta euskal gizarteko komunikazio-beharrei erantzungo dien proiektuak egin behar dira.

2. dimentsioa: Euskadiren irudia munduan proiektatzea. Horrela, Euskadiren irudi positiboa sustatuko da kanpoan, hain zuzen ere geroz eta euskal herritar gehiagok -hainbat arrazoi medio- nazioarteko sareekin harremanak dituzten une honetan. 2008ko ekainaren 5ean World Café delakoan egindako eskaeraren ondoriozko ekarpena da dimentsio hau. Egun horretan, izan ere, ehun bat pertsonak EiTBko GEKen orientazioari buruz eztabaidatu zuten eta, ondoren, 2009ko maiatzan egindako bigarren World Caféan erronka hori berretsi zen.

3. dimentsioa: Euskararekiko konpromisoa. Helburuak euskarazko komunikazioarekin afektu eta emozio positibodun lotura bat sortzea eta euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzea dira.

4. dimentsioa: Enpresa-iraunkortasuna. Helburua gizarteari balioa emango dion enpresa-kudeaketa garatzea da, herritarrak baitira beren zergen bidez EiTBren jardura finantzatzen dutenak. Horretarako, enpresa publiko erreferentearen aldeko erredua garatu behar da, eraginkortasun irizpideak eta emaitza onak izango dituela.

5. dimentsioa: Ingurumen-iraunkortasuna. Helburua baliabideak erabiltzean politika arduratsuak sustatzea da. Horretarako, ingurumenaren gaineko kaltea murriztu eta gizarte-sentsibilizazioa sustatu behar da, bai barrurantz, bai kanporantz.



6. dimentsioa: Gizarte eta laneko iraunkortasuna. Helburua enplegatuekin eta prestakuntza-aldian dauden gazteekin erantzukizun-politikak sustatzea da.

EiTBko Zuzendaritza Kontseiluak onetsi duen ikuspuntua da eta EiTBn eta bere Telebista (ETB, S.A.), Irrati (Eusko Irratia, S.A.) eta Interneteko (S.A.) sozietateetan aplikatzen da. Era bateratuan kudeatzen da talde osoan.

Stakeholder-ek GEKen sei dimentsioetan duten eragina eta ondorioaren azterketa

Enpresako goi-zuzendaritzak esku hartzen duen GEKen kudeaketa-taldeak sei dimentsioek interes-taldeetan izandako eragina eguneratu du. Lauki hauetan eragin mota adierazten da.

Enpresatik KANPOKO interes-taldeak, " Komunitate " gisa sailkatutakoak. EiTBren gizarte-erantzukizuneko 6 ardatzen eragina	
Herritarrekiko konplizitatea	Gaixoen elkarteak; haurrak eta senideak; prestakuntza-zentroak; unibertsitateak; kirol-federazioak; museoak; kultura-elkarteak; enplegu eta kudeaketako enpresa-elkarteak; sindikatuen erakundeak; terrorismoaren biktimak; gorrak; haurren GKEak.
Euskadiren irudia munduan proiektatzea.	Euskal diaspora; munduan dauden euskal profesionalak; nazioartean ezarrita dauden euskal enpresak.
Euskararekiko konpromisoa.	Euskararen interesa duen publikoa; haurrak eta senideak; euskararekin lotutako erakundeak; kazetaritza euskaraz ikasten duten ikasleak; EiTBko materialak dituzten Euskaltegiak; Euskarazko komunikazioaren profesionalak; unibertsitatea.
Enpresa-iraunkortasuna	Sozietatea / zergadunak. Ikus-entzunezko sektoreko gaur egungo eta etorkizuneko profesionalak.
Ingurumen-iraunkortasuna.	Sozietatea / zergadunak. IZAITE.
Gizarte eta laneko iraunkortasuna.	EiTBn enplegua nahi duten ikasleak; unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak; EiTBko langileen senideak.

Enpresatik KANPOKO interes-taldeak, " Bezeroak eta erabiltzaileak " gisa sailkatutakoak. EiTBren gizarte-erantzukizuneko 6 ardatzen eragina	
Herritarrekiko konplizitatea	Babesle ofizialak; EiTBko telebistako, irratiko eta Interneteko audientzia eta erabiltzaileak; EiTBren gizarte-ekitaldietan parte hartzen duten beste herritar batzuk.

ENPRESAREN GOBERNUARI BURUZKO TXOSTENA

Euskadiren irudia munduan proiektatzea.	EiTBko edukiekin konektatzen diren nazioarteko audientzia eta erabiltzaileak.
Euskararekiko konpromisoa.	Bikoizketa doan eskaintzen duten publizitate-enpresak.
Enpresa-iraunkortasuna	Iragarleak; publizitate-enpresak; hedabideen zentralak.
Ingurumen-iraunkortasuna.	Bezero komertzialak.
Gizarte eta laneko iraunkortasuna.	---

Enpresatik KANPOKO interes-taldeak, "**Hornitzaileak**" gisa sailkatutakoak.

EiTBren gizarte-erantzukizuneko 6 ardatzen eragina

Herritarrekiko konplizitatea	---
Euskadiren irudia munduan proiektatzea.	---
Euskararekiko konpromisoa.	---
Enpresa-iraunkortasuna	Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra (EIKEN+); Edukien ekoizleak; hedabideen ekoizleak; outsourcing profesionalak; ondasun eta zerbitzuen hornitzaileak.
Ingurumen-iraunkortasuna.	Hornitzaileak/erosketa berdea.
Gizarte eta laneko iraunkortasuna.	---

Enpresatik KANPOKO interes-taldeak, "**Euskal Administrazioa**" gisa sailkatutakoak.

EiTBren gizarte-erantzukizuneko 6 ardatzen eragina

Herritarrekiko konplizitatea	Gobernuko sailak (zenbait); Tokiko/foru administrazioa; Eusko Legebiltzarra; Osakidetza.
Euskadiren irudia munduan proiektatzea.	Gobernuko sailak (zenbait); Eusko Legebiltzarra.
Euskararekiko konpromisoa.	Gobernuko sailak (zenbait). HABE; Eusko Legebiltzarra.


ENPRESAREN GOBERNUARI BURUZKO TXOSTENA

Enpresa-iraunkortasuna	Gobernuko sailak (zenbait); Eusko Legebiltzarra.
Ingurumen-iraunkortasuna.	Ingurumenarekin lotutako erakundeak; Eusko Legebiltzarra.
Gizarte eta laneko iraunkortasuna.	Genero-berdintasunarekin lotutako erakundeak; Eusko Legebiltzarra.

Enpresatik KANPOKO interes-taldeak, " Langileak " gisa sailkatutakoak. EiTBren gizarte-erantzukizuneko 6 ardatzen eragina	
Herritarrekiko konplizitatea	Plantillako pertsonak eta laguntzaileak, proiektuen arabera.
Euskadiren irudia munduan proiektatzea.	Plantillako pertsonak eta laguntzaileak, proiektuen arabera.
Euskararekiko konpromisoa.	Plantillako pertsonak eta laguntzaileak, proiektuen arabera.
Enpresa-iraunkortasuna	Plantillako pertsonak eta laguntzaileak.
Ingurumen-iraunkortasuna.	Plantillako pertsonak eta laguntzaileak.
Gizarte eta laneko iraunkortasuna.	Plantillako pertsonak eta laguntzaileak.

Alderdi garrantzitsuenen azterketa nagusia

EiTBk sortutako balio-aldagaiei buruzko azterketak, Stakeholder-ekin izandako gizarte-elkarrizketa zabalak, eta Media CSR Forumei komunikabideen sektorerako egindako txostenen azterketak, nahiz bazkide garen IZAITE Iraunkortasunerako Euskal Enpresen Elkartearen osatzen duten erakundearen materialtasunaren azterketak, EiTB Taldearentzat esanguratsuak diren alderdien materialtasunaren ardatz nagusia egiteko aukera ematen dute.



Taula honetan, aurkitutako alderdi esanguratsuen estaldura adierazten da, EITB Taldearen zuzendaritzaren eta interes-taldearen ikuspegiak kontuan hartuz.

Alderdi orokor garrantzitsua	Berariazko alderdia
Estrategia	Ildo estrategikoak
Erakundearen profila	Osaera, eskaintza eta hedapena
	Lanpostua
Interes-taldearen partaidetza	Erlazioa
Gobernu Korporatiboa	Gardentasuna
	Kontrol-mekanismoak
Berariazko dimentsio soziala	Euskara
	Herritarrak
	Euskadiren irudia
Kudeaketa ekonomikoa	Diru-sarreraren eta kostuen kudeaketa
	Ustiapena eta proiektuak
Gizartea	Gizarte-ekimenak
Produktua	Edukien sorkuntza eta zabalkundea
	Bezeroen gogobetetasuna

Erlazioa hornitzaileekin eta balio-katearekin

EiTB Taldean kudeaketa iraunkorra egiten da interes-taldeek parte hartzen badute, eta zehazki, balio-katea osatzen dutenek, hornitzaileek, audientziak eta iragarleek parte hartzen badute. Horren ondorioz, balio-kateak Taldearen estrategian parte hartzen du, eta zehazki, hornitzaileek, bere ustez funtsezkoak direlako EiTB Taldeak bultzatutako kudeaketa aurreratuaren esparruan, iraunkortasunari begira.

Horrela, 2013-2016 Plan Estrategikoaren gauzatze-fasean, interes-taldeek ikuspegitik, kanpoko gizarte-ordezkariek zituzten bi talde eratu ziren, eta euskal ikus-entzunezko sektore independentearen produkzio-etxez osatutako talde bat, epe luzearako estrategiak garatzeko eta balio-katearen iraunkortasuna hobetzeko guztien helburuan parte hartzeko.

EiTB Taldeak bi motatako hornitzaileak bereizten ditu:

- Ikus-entzunezko edukiak hornitzen dituzten produkzio-etxeak eta banatzaileak.
- Ondasun eta zerbitzuen hornitzaileak.

Produkzio-etxeak eta banatzaileak

EiTB Taldearen Ekoizpen Zuzendaritza produkzio-etxeekin eta banatzaileekin izandako harremanaz arduratzen. EiTB Taldeak esparru-akordioak eta kontratazioak egiten ditu egoitza Euskadin duten ikus-entzunezko sektoreko enprekin nagusiki, produktuaren zenbait baldintza direla eta (hizkuntza, kokapen geografikoa, publiko euskalduna ezagutzea...), bertako hornitzaileak egokienak direla eskaera asetzeko.

Ondasun eta zerbitzuen hornitzaileak

Zerbitzu, hornidura eta obren erosketak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak arautzen ditu, xede horretarako ezarritako Europako Zuzentarauaren arabera. Lege hori aplikatuz, zerbitzuari eta gizarteari balioa ekartzen dieten irizpide teknikoak, ekonomikoak eta beste gizarte eta ingurumen alderdi batzuk kontuan hartzen dira. Alderdi horien barruan barne hartzen dira desgaituen laneratzeari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta ingurumen-alderdiak. Kontratazio bakoitzaren oinarritzko dokumentazioan horiek zehazten dira.

Hornitzaileek eta beste interes-talde batzuek kontratazio publikoak eta eitb.eus webguneko Kontratatzaileraren Profilaren bidez ezarritako baldintzak kontsulta ditzakete.

Horrez gain, hornitzaile guztiek EiTB Taldearen hornitzaileen homologazio-prozesua gainditu behar dute. Ikuskapenak egiten dira eta AENOR ziurtagiria eskuratu behar da, ISO 9001 Arauarekin ziurtatutako kudeaketa-sistemei egindako ikuskapenen irismenaren barruan.

Azkenik, EiTB Taldeak gogobetetasun-inkestak egiten ditu urtero bere hornitzaile estrategikoei produkzio-etxeentzat, banatzaileentzat eta obra, ondasun eta zerbitzuen hornitzaileentzat. Horrela, urteko Ekintza Plan bat ezartzen du, eta bere helburua da hoberen baloratutako hornitzaile estrategikoak motibatzea eta saritzea, eta balorazio hain onak jaso ez dituzten hornitzaileekin neurri zuzentzaileak hartzea.

GEK kudeatzea

Kudeaketaren ikuspuntua Gizarte Erantzukizun Korporatibora aplikatzean, zeharkako errealitate gisa ulertzen dira taldeko prozesu guztiak, eta, beraz, berauek garatzeko sozietate arteko talde bat identifikatu da.

Talde arduraduna honakoa da:

GEKen koordinatzailea: estrategia eta Komunikazioko zuzendaria, Prozesuen eta GEKren koordinatzailearen laguntzarekin.

1. *dimentsioko koordinatzailea:* autosustapen eta Ekitaldietako kudeatzailea.
2. *dimentsioko koordinatzailea:* EITBNETeko zuzendaria.
3. *dimentsioko koordinatzailea:* Euskara zerbitzuko burua.
4. *dimentsioko koordinatzailea:* Reporting eta Adierazleen koordinatzailea.
5. *dimentsioko koordinatzailea:* Zerbitzu Orokorren eta Kalitate Kontrolaren koordinatzaileak, ingurumen-sistema kudeatzen dutenak.
6. *dimentsioko koordinatzailea:* Lan harremanen burua.

Dimentsioko koordinatzaile bakoitzak laguntzaileen sare propioa ezarri du eta, horiekin harremanak izatez gain, beraien babesa jasoko du, ekintza-ildoak eta horiekin lotutako proiektuak garatzeko.

Ondorioz, Gizarte Erantzukizunaren barne-kudeaketa sarean garatutako sistema gisa planteatu dugu. Bertan, hogeita hamar kolaboratzaile profesional baino gehiagok, dituzten enpresa-helburuak alde batera utzita, balioa sortzeko laguntza ematen dute eta GEK proiektuak garatzen dituzte.

EiTB taldean aplikatzen den edozein kudeaketa-sistemak bezala, GEK-k ikuspegia, ekintza-plana eta jarraipen-adierazleak dauzka.

GEKen komunikazioa

Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren komunikazio-tresna gisa, bi urtero EiTBren Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Memoria idazteko konpromisoa hartu dugu. Memoria hau, hain zuzen ere, agiri horren bosgarren argitalpena da.

- 1. argitalpena: 2007-2008ko memoria
- 2. argitalpena: 2009-2010eko memoria
- 3. argitalpena: Memoria 2011-2012
- 4. argitalpena: 2013-2014ko memoria
- 5. argitalpena: 2015-2016ko memoria.

Euskal gizarteari informazioaren egiazkotasuna bermatzeko, memori guztiek nazioarteko estandarrek eskatutako eduki-baldintzak bete behar dituzte, eta kanpoko erakunde independenteen egiaztatzen dituzte. Lau memorietan jasotako informazioa eta datuak AENOR-en kontrastearen pean jarri dira, eta *Global Reporting Initiative-GRI^{A+}* nazioarteko estandarraren eta Komunikabideetarako sektoreko eranskinaren arabera eginda daude. Azken

argitalpen horretan, memoria GRI G4 Gidaren eskaerekin "bat etorriz" egin da -aukera zorrotza-.

Organismo horiei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, jo honako webguneetara: www.aenor.es eta www.globalreporting.org.

Memoriaren bosgarren edizioaren berrikuntza enpresa-gardentasunean eta materialtasunaren azterketa sakontzea da. Enpresa-gardentasunari buruzko informazioa eskaintzen du, berariaz egituratua. Horren bidez, EITBk gardentasun-eskaera gorakorrari erantzuten dio, euskal gizarteko eragile sozial eta politikoak gero eta zorrotzagoak direla igarri du-eta. Era berean, gaur egun gardentasunaren irismena zehaztea eta mugatzea errazten duten ikerketa, arau eta kasu aurreratuak daude. Ekarpen horren bitartez, EITBk informazio esanguratsua eman eta enpresa gardentasunaren abangoardian kokatu nahi du.

Memoriaren egiturak berak zuhurtasun eta gardentasunaren printzipioei erantzuten die eta lehentasunezko eduki gisa jasotzen du enpresaren eta eraginen ikuspegitik garrantzitsua den guztia.

- 2015-2016ko GEK memoria: garatutako proiektuen laburpen nagusia.
- A eranskina: Gobernuari eta Gardentasunari buruzko txostena a) enpresaren profila, b) gobernu arduratsua, c) EITB taldeak hartutako Gizarte Erantzukizunaren eredua, d) gardentasunari buruzko bost txosten.
- B eranskina: GRI G4 adierazleak + Komunikabideen sektoreko eranskina.
- C eranskina: GRI baliokidetasun-taula (*Guideline G4 dokumentazio teknikoa*).

Memoria interes-taldeetako ordezkariak banatuko zaie, EITB taldearen komunikabideetan argitaratuko da eta www.eitb.com webgunean (gardentasuneko ataria) eskuragarri egongo da.

GEKi edo Memorian emandako informazioarekin zerikusia duen edozein gairi buruzko edozein kontsulta orokor nahiz zehatz egiteko, honako bi bideak erabil daitezke:

- Bezeroaren arretarako telefonoa: (+34) 94 656 3122
- Helbide elektronikoa: info@eitb.eus

Horrez gain, herritarrek informazioa ikusteko eskubidea erabil dezakete. Hori egiteko, aipatutako gardentasuneko atarian (www.eitb.eus) eskura daitekeen inprimaki bat bete behar da.

4. zatia

1. gardentasun-txostena

berariazko legeria aplikagarriari eta borondatez
onartutako autoarauketa-arauei buruz

BERARIAZKO LEGERIA APLIKAGARRIA

Lege / Arau aplikagarria	Iruzkina
5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko buruzkoa (BOPV nº 71; 02-06-1982).	Ondokoek aldatuta: urriaren 11ko 4/1996 Legea, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko legea eraberritzekoa, EITBko zuzendari nagusiaren izendapenari eta kargu-uzteari buruzkoa (EHAA, 212. zk., 1996ko azaroaren 4koa), eta martxoaren 27ko 8/1998 Legea, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko Legea aldatzen duena. (EHAA, 17. zk.; 1998-04-02).
157/1982 Dekretua, Euskal Telebista-Televisión Vasca S.A. akziokako Herri-Baltzua sortarazteari buruzkoa.	EHAA, 102. zk., 1982-08-16
158/1982 Dekretua, Euskal Telebista-Televisión Vasca S.A. akziokako Herri-Baltzua sortarazteari buruzkoa.	EHAA, 103. zk., 1982-08-17
Martxoaren 20ko 77/1984 Dekretua, "Euskal Irrati Telebista" Herri Erakundeari "Gasteiz Irratia, A. B." Akziokako Herri Baltzua sortzeko baimena ematen duena.	EHAA, 55. zk.; 1984-03-28
Maiatzaren 6ko 100/2003 Dekretua, Euskal Irrati Telebista Erakundeari EITBnet Sozietatea sortu eta bertan partaidetza izateko baimena ematen diona.	EHAA, 103. zk.; 2003-05-28
Azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorra, Publizitateari buruzkoa.	BOE 274; 1988-11-15
Uztailaren 11ko 34/2002 Legea, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzkoa.	BOE, 166 zk.; 2002/07/12
Abuztuaren 1eko 6/2010 Legea, ikus-entzunezko komunikazio orokorrari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Legea aldatzen duena, ikus-entzunezko komunikazio autonomoen zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak malgutzeko.	BOE, 79 zk.; 2010/04/01 2007/65/EE Zuzentaraua txertatzen du. Azaroaren 14ko 1624/2011 Dekretuak garatzen du, telebistako merkataritza komunikazioari buruzko araudiaren onarpenaren bidez (EAO, 294 zk.; 2011-12-07). BOE, 184 zk.; 2012/08/02

2/2015 Errege Lege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.	BOE, 75 zk.; 1995/03/29 BOE, 38 zk.; 2012/02/11 Otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua, lan-merkatua berritzeko premiazko neurriei buruzkoa. BOE, 255 zk.; 2015/10/24
Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.	BOE, 276 zk.; 2011-11-16
Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria arautzen duena.	BOE, 71 zk.; 2007-03-23 EAEn honako hau ere aplikagarria da: martxoaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna arautzen duena (EHAA, 42 zk.; 2005-03-02).

BORONDATEZ ONARTUTAKO AUTOARAUKETA ARAUAK

EiTB zerbitzu publikoaren xedea herritarrei programazio orekatua eskaintzea da. Horretarako, kultura-aniztasuna sustatu, pluralismoa bermatu eta kalitatezko informazio eta entretenimendua erraztu behar dira, modu demokratikoan eta doan.

EiTB sortzeko Legean, bere komunikabideetako jardueren inspirazio-printzipio hauek jasotzen dira:

- a) Informazioaren objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna.
- b) Informazio eta iritzi kontzeptuak desberdintzea eta banantzea, azken horrek nork adierazi duen identifikatzea eskatzen baitu. Tratamendu berdina (desberdindua eta banandua) eskatuko du publizitate komertzialak.
- c) Berdintasun-printzipioa, pluralismo politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta hizkuntzakoa errespetatzea.
- d) Konstituzioan eta Autonomiako Estatutuan aitortutako bizikidetzako hiritar-balioak defendatzea eta sustatzea, interes orokorraren alde.
- e) Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak onartzen duen eskubide oro errespetatzea.
- f) Pertsonen ohorea, ospea eta, bereziki, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatzea.
- g) Gazteak eta haurrak babestu eta sustatzea.
- h) Euskal kultura eta euskara sustatzea; euskararen erabilera bultzatze aldera, autonomia-erkidegoan euskarazko irrati eta telebisten eskaintza orokorra orekatuaz izateko oinarritzko programazio-printzipioak ezarriko dira.

Zerbitzu publikoaren printzipio horiek eta enpresa-kudeaketa arduratsuarekin lotutako beste batzuk garatzeko asmoz, EiTBk autoarauketa funtzioa duten barne- eta kanpo-konpromisoak hartu ditu. Zehazki,

- Albistegien eskaintzari dagokionez:

1. EiTBren argitaratze-irizpideak.

EiTBko Argitalpen Kontseiluak 2008an onetsitako agiria da, Taldearen albistegi-zerbitzuen nondik norakoak zehazteko. Bi atal ditu:

- a) EiTBko argitalpen-zuzentzarauak: Kazetaritzako etika, enkoadraketa, autoarauketa eta horien erabilera enpresa publikoan; giza eskubideen gizartea eta komunikabideen gizarte-erantzukizuna; eta taldearen jarraibide profesionalak.

- b) *Giza Eskubideen, Biktimen eta Bakearen alorreko proposamen profesionalak: gai horietako albisteetan lantzeko moduari buruzko oinarriak.*

2. **Giza Eskubideak, Biktimentzako Arreta eta Bakea.**

2013ko urriaren 23an, Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 eperako Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuen. Plan horretako 18. fitxak EITBri egiten dio erreferentzia, eta honetan jartzen du arreta: batetik, gizartearen kontzientzia kritikoa sendotzea indarkeriaren aurrean, bai eta giza eskubideekin eta bizikidetzaren demokratikoko balioekin konprometitu dagoena ere, eta, bestetik, konpromiso sozioedukatiboa sustatzea, lankidetzarako esparruak sortuta. Ondorioz, elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten EAEko Administrazio Orokorra eta EITBk, eta bertan EITBk konpromiso hauek hartu zituen, besteak beste: helburu etiko eta demokratikoekin konpromisoa duen argitaratze-ildoak izatea; gai horrekin lotutako gertakari nabarmenei jarraipena egin eta haiek zabaltzea; iraganeko memoria kritikoari buruzko sail dokumental bat garatzea; Memoriaren Egunaren eta Giza Eskubideen Egunaren esparruan sentsibilizazio-kampainak egitea; eta beste konpromiso batzuk.

3. **Aniztasun politikoa islatzea.**

EITBk hilerok bidaltzen dio Eusko Legebiltzarrari talde politikoei emandako informazio-trataerari buruzko txostena. Txosten horretan, iratiak eta telebistak informazio politikoa eskaintzen eman duten denbora eta talde politiko desberdinetako kide eta liderrei egindako elkarrizketen zerranda azaltzen dira.

4. **EiTBren Estilo Liburua.**

EiTBren Estilo Liburuak aktualitateko gaiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erredakzioetan askotan zalantzak eta eztabaidak sorrarazten dituzten auzi deontologikoak antzematen ditu. Horiek guztiak aztertu eta horien inguruko jarrera finkatzen ahalegintzen da, hedabide publikoa den aldetik, betiere gizarte erantzukizuna kontuan hartuta: zertarako lan egiten dugun eta nola lan egiten dugun.

EHU/UPV eta EiTBren arteko lankidetzaz egindako lanari esker, jakintza-arlo askotako profesionalen osatutako lantalde batek albisteen trataerari eta profesionalen jardunari buruzko jarraibideak eman ditu, kazetaritza arduratsua sustatzeko.

Lan hori oso egokia da komunikazioaren profesionalentzat, etorkizuneko komunikatzaileak prestatzen dituen hezkuntza eta unibertsitate arloan dihardutenentzat eta, era berean, hedabideetatik jasotzen duten informazioaren kalitateaz interesatzen diren herritarrentzat.

- Publizitateari dagokionez:

5. Autokontrola.

EiTB taldea publizitatearen alorrean lan egiten duen *Autocontrol de la Publicidad* erakundearen partaidea da. Irabazi-asmorik gabeko erakunde horrek publizitateko autoarauketa sistema kudeatzen du. Publizitate-agentziak, iragarleak eta komunikabideak dira *Autocontrol* antolakundeko kide nagusiak.

Izan ere, erakunde horrek komunikabideetan publizitatea ematean sortutako eztabaidei buruzko kontsultak eta txostenak aztertzen eta ebazpenak ematen ditu, eta, horrela, publizitatearen emisioa araudi aplikagarriaren arabera kudeatzen dela bermatzen da. *Autocontrol* erakundeak publizitatea arduratsua dela zaintzen du, bai edukien aldetik, bai hedapenaren aldetik.

Antolakunde horrek idazten dituen urteko txostenek diotenez, 2015ean eta 2016an erreklamaziorik gabeko kontsultak egin dira eta, horren ondorioz, *Autocontrol* erakundearen publizitateari buruzko epaileek ez diote EiTBri ez zigorrik jarri, ez kontrako ebazpenik eman.

Era berean, ez du zigorrik edo inolako errekerimendu edo deirik izan eskumena duten erakundeen aldetik, Eusko Jaurlaritzatik edo CNMC erakundetik (Estatuan eskumenak dituen erakundea) datozen publizitate-arauen betetzea kontrolatzean.

6. EiTBren araudia publizitatea arautzeari buruz.

Administrazio Kontseiluak, 1992an, lehenengoz onartu zuen *Publizitatea EiTBko hedabideetan emateko araudia*. Geroago, araudi hori indargabetu eta berria onartu zuen Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 17an.

Arau horiek, indarreko legedia jasotzeaz gain, honako konpromisoa hartzen dute: publizitatea kontratatzean EiTB sortzeko Legearen inspirazio-printzipioak aplikatuko dira, kontsumitzailearenganako eta hurrenganako autoarauketa arduratsuago eta konprometituagoaren alde.

7. Confianza OnLine.

CONFIANZA ONLINE izeneko kodeari atxiki zitzaion EiTB 2012ko ekainaren 1ean. Kodea kudeatzen duen elkartearen xedea honakoa da: euskarri berrietan (Internet) publizitate eta merkataritzaren garapena gauzatzen, sustatzen eta babesten duten ahalik eta erakunde profesional gehien asmoak biltzea.

Confianza online elkartearen helburu nagusia Internet barruko nabigatze segurua ziurtatzea da eta, horretarako, gardentasun eta sinesgarritasun aitortpena ematen die

atxikitako webguneei, herritar guztientzako konpromiso etiko eta sozialaren erakusgarri.

Norberaren datuen babesak ere lekua dauka CONFIANZA ONLINE kodearen edukien autoarauketa-esparruan, arlo horrek babes egokia behar baitu publizitate jarduerak garatzen direnean nahiz kontsumitzaileekiko kontratu eragiketak egiten direnean.

- Generoaren trataerari dagokionez:

8. Emakumearen irudiari buruzko erabilera baztertzailea saihesteko erabakia.

2008an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren barruko sailarteko talde teknikoak ekintza hori garatzea proposatu zuen publizitateari lotuta, 2008ko Berdintasun Planaren barruan. EITBk erabaki hori bermatzeko barne-prozedurak ditu eta, horren bidez, publizitateko eduki guztiak ikusten ditu, jendaurrean eman baino lehen. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo zirikatzen duten edukiak kontrolatzen dira hitzarmen horren baitan.

9. EiTBen Berdintasun Plana.

EITBk hainbat ekintza gauzatu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Berdintasun Planaren barnean. Plan horrek urtero egin beharreko jarduketa eta ekimen sail bat zekarren, zegokien ebaluazioa eta jarraipena barne. 2011n eta 2012an, EITBk plan horretan hartutako konpromisoak ezarri zituen.

2011n, EITBk bere Berdintasun Plana diseinatu zuen, 2010eko maiatzaren 21eko “*+ que Igualdad-Berdintasun Programa*” dokumentuaren arabera, eta, hartara, zuzendari nagusiak Eusko Legebiltzarreko EiTBen Kontrolerako Batzordean hartutako konpromisoa bete zuen. EiTBen Berdintasun Plana 2012ko martxoan onartu zen. 2014a bitartean egon da indarrean.

2015ean, II. Berdintasun plana onartu du 2015-2018 epealdirako. Plan honen helburu nagusienetarikoa bat da, EITB komunikabide publikoa den heinean, aukera-berdintasun kontuetan bultzagile izatea lan eremu publikoan. 2015an eta 2016an, EITBk Planaren gaineko azalpenak eman ditu Eusko Legebiltzarrean, hainbat talde parlamentariok eskatuta.

Emakumezkoen kirola lantzeko informazio-ildo bat dago.

Nabarmenezko gertakari moduan, Euskal Herriko *Publizitate eta komunikazio ez sexistarako Kode deontologikoa eta autorregulaziokoa* aipatu behar da. EITBk, beste erakunde batzuekin elkarlanean, aipatutako kodearen lanketan parte hartu du Begira Batzordean (Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku batzordea).

- Euskararekin lotuta

10. Hitzarmena Euskaltzaindiarekin.

2003an hitzarmen bat sinatu zen, eta haren arabera Euskaltzaindiaren eta EiTBen arteko lankidetzat bultzatu zen, EiTb euskara zabaltzeko erakunde nagusietako bat baita. Hitzarmen hori 2007an eta 2009an berritu zen, hurrengo urteetarako. EiTbK arreta jartzen du bere bitartekoetan euskara ondo erabiltzean, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioen arabera, eta, bere aldetik, Euskaltzaindiak aholkuak eta argibideak ematen dizkio EiTbri euskara ondo erabiltzeko. 2015-2016 aldian lanean jarraitu da, nagusiki, hedabideekin zuzenean lotuta dagoen onomastikan.

- Haurren babesarekin lotuta

11. Telebistako edukiei eta haurrei buruzko Autoarauketa Batzordea.

Telebistako Edukiei eta Haurrei buruzko Autoarauketa Kodea 2004ko abenduaren 9an Espainiako Gobernuak eta telebistaren arloko operadore nagusiek, haien artean EiTbK, izenpetutako hitzarmen bat da. Hain zuzen, haurrak telebistan eduki kaltegarrietatik babestea da helburua. Autoarauketa Kodeak denbora-tarte batzuk ezartzen ditu, eta haietan debekatuta dago gomendatuta ez dauden edukiak ematea, besteak beste, indarkeria, sexua, [okultismoa](#) edo [drogak](#) erakusten dituztenak.

Zehazki, babes-tarte hori 06:00 eta 22:00 artekoa da, eta "babes indartuko" tarteak, 08:00-09:00 eta 17:00-20:00 artekoa. Asteburuetan eta jaiegunetan ere, adibidez Eguberrietan eta udan, "babes indartua" izaten da.

2010eko azaroaren 18an, Telebistako Edukiei eta Haurrei buruzko Autoarauketa Kodearen atarikoaren arabera —telebistako operadoreek 2004an sinatutakoa—, ETBk programak sailkatzeari buruzko, lotutako seinalizatzeko koloreen kodeari buruzko eta ordutegi babestuan eta babes indartuko tarteetan programak eta sustapenak mugatzeari buruzko arauak izenpetu ditu.

Ministerio arteko hitzarmena, haurrentzako eta gazteentzako programazio-edukien autokontrolerako.

1993ko martxoaren 26an, ETBk, beste telebista-kate batzuekin batera, bai Estatukoak eta bai autonomia-erkidegoetakoak ere, autoarauketa-hitzarmen bat izenpetu zuen, haurrak eta gazteak babesteko zenbait edukirekin lotuta, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin. ETBk printzipio horiek programazio-ildo nagusietan garatzen ditu. Espainiako Gobernuak ez dio ohartarazpenik egin ETBri arau hori ez duelako bete.

12. Haurrentzako euskarazko eskaintza zabala izateko konpromisoa.

EiTbK bere gain hartua du euskararen normalizazioa bultzatzeko konpromisoa, bereziki haurren artean. Horretarako, ETB1-en haurrentzako edukien tarteak handitu du, eta, 2010az geroztik orain arte, target horretarako ETB3 haurrentzako kanala diseinatu du.

Horrez gain, konpromisoa Interneteko euskarrira zabaldu da: haurrentzako edukien eskaintza handia da www.EiTB.eus/hiru3 webgunean eta, 2012az geroztik, EiTB Nahieran ere badago. Horrenbestez, haurrentzako edukiak edozein unetan ikus daitezke.

Horri guztiari gehitu behar zaio EiTB Taldeak Hiru3 haurren fidelizazio-kluba kudeatzen duela, pertsonaia berriekin eta 15.400 bazkiderekin (hasierako bazkide-kopurua). Haiei aldizkari digital espezializatua eta urtebetetzeak zoriontzeko gutun pertsonalizatua bidaltzen dizkie. Gainera, Internet bidezko entretenimendu-kanala eskaintzen die. Nabarmentzeko moduko beste jarduera bat urtero Hiru3 Jaia egitea da, uda inguruan.

- Gizarte-programei eta gutxiengoan taldeei tartea emateari dagokionez:

13. Sinesmen erlijiosoan gainera arreta.

EAEn nagusi den sinesmen katolikoaz harago, EiTBko komunikabideek gutxiengoan beste fede eta erlijio batzuei buruzko programa erlijiosoak eskaintzen dituzte.

14. Legebiltzarraren jardunean arreta jartzea.

ETBk programa bat eskaintzen du astero legebiltzarraren jardueraren gainean. Programa horrek, *Palabra de Ley* izena duenak, talde guztien onarpena lortu du urte hauetan, edukia askotarikoa delako.

Herritarrentzat interes orokorrekoak izan daitezkeen legebiltzarreko eztabaidak osorik eman ohi ditu ETBk.

2010az geroztik, telebistaren eta Interneten bidez, Eusko Legebiltzarrak hamabostean behin egiten dituen osoko bilkurak ematen ditu ETBk, Gobernuaren kontrolatzeari buruzkoak.

15. Euskal kultura tradizionalan arreta jartzea.

EiTBk arreta berezia jartzen du euskal kultura tradizionalan eta jende askoko ikus-entzunezko komunikazioaren arloan presentzia izatea bermatzen du (izan ere, errentagarritasun ekonomikoa aintzat hartuta, ez litzateke egongo).

Hartara, bitarteko desberdinen bidez, hauek ditugu:

- *Bertsolaritza*. "Bertsozale Elkartarekin" hitzarmenak izenpetzen dira, Euskadin egiten diren jaialdiei jarraipena egiteko eta haiek emititzeko. El programa más conocido es *Hitzetik Hortzera* de ETB1, pero también hay oferta específica en Euskadi Irratia y en www.EiTB.eus/kultura
- *Pilota*. Era berean, tradiziozko kirolari arreta eginez, pilota-partidak antolatzen dituzten erakundeekin ere izenpetzen dira hitzarmenak, eskuzko pilota, zesta-punta, pala edo erremonte partidak edo lehiaketak emateko. Mota horretako ekitaldien gainean ETBk egiten duen eskaintza zabala bakarra da bere estaldura-eremuan, eta, hartara, maila horretan (errentagarria ez denez) beste hedabide

bakar batek ere eskaintzen ez duen programazio-eskaintza osatzen du. Gainera, 1999az geroztik, EITBk Euskadi Irratia Saria ematen dio Binakako Txapelketako pilotaririk onenari. Sari horrek oihartzun handia izaten du hedabideetan, bai EAEn, bai Nafarroan eta Errioxan ere.

- *Traineruak.* EITBk lehen mailako informazio-jarraipena egiten dio estropaden denboraldiaren garapenari. Estaldura handia eskaintzen du, bere euskarrietako bakoitzean, Traineruen Ligako lehiaketan gainean eta denboraldiko gainerako hitzordu garrantzitsuen gainean, hala nola Kontxako Banderan eta Euskadiko Txapelketan.
- *Euskal kirola.* Euskadin egiten diren kirol-lehiaketak edo -ikuskitzak ematen ditu, herri-kiroletan arreta berezia jarrita. Ekitaldi horiek ematen dituen hedabide bakarra da EITB.

16. EITB Kultura.

2007an "EITB Kultura" sortu zen, EITB Talderako zeharkako edukien ildo gisa. Zeregin bikoitza du: a) EITB Taldeko telebista, irrati eta Internet hedabideetan kulturaren arloko informazioa gogobeteko moduan estaltzea; eta b) kulturaren sustatzaile aktiboa izatea. Arduradun bat du EITBren hedabideak koordinatzeko, kulturaren arloko agenteekin kontaktua eta harremanak ezartzeko eta kulturarekin lotutako zerbitzu publikoko proposamenak egiteko. Memoria honek hartzen duen aldian, hauen alde egin da eta hauek indartu dira: edukien zeharkakotasuna, ezagutzen zeharkakotasuna eta argitaratze-ildoaren koordinazioa kultura-informazioaren gaian.

- Pertsonen oinarrizko eskubideen arretari dagokionez:

17. Oinarrizko eskubideen gaineke arreta.

Pertsonen eskubideekin (ohorea, irudia eta intimitatea) lotutako gertaeretan prebentzioa eta arreta bermatzeko lanari esker, azken bosturtekoan ez da arrazoi horren ziozko demandarik egon, EITB Taldearen komunikabide batean ere ez.

- Enpleguari, lanen estaldurari eta laneko segurtasunari dagokienez:

18. EITBko eta bere sozietateetako plantilla finkoan sartzeko arauak.

Administrazio Kontseiluak onartu zituen 1987ko urriaren 6an eta 2003ko abenduaren 23an eguneratu ziren. Plantilla finkoa osatzeko era arautzen dute, publizitate, gardentasun eta aukera berdintasunaren abiaburuak aintzat hartuta. Hautaketa-prozesu guztietan, Administrazio Kontseiluko eta Enpresa Batzordeetako ordezkariak parte hartzen dute kontrol-organo gisa.

19. Aldi baterako langileak hautatzeko prozedura.

EITBko Zuzendaritza Kontseiluak onartu zuen 2002ko urtarrilaren 29an. Prozedura horrek aldi baterako langileak kontratatze irizpideak eta biltze eta hautatze iturriak

arautzen ditu. Prozesu hori hobetzeko, akordioa lortu da enpresa batzordeetako ordezkariekin, beraien partaidetza eta lankidetzak bermatzeko. 2009. urteaz geroztik, lan kategorien arabera zerrenda baremodunak ezartzen dira.

20. Laneko Prebentzio eta Osasun Sistema, OHSAS 18000 arauaren babespean.

2005. urteaz geroztik, EiTBren eta bere sozietateen Laneko Prebentzio eta Osasun Sistema OHSAS 18000 arauaren arabera ziurtatzen da. Arau horri jarraiki, sistema bat ezarri behar da laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko. Arauaren betekizunak eta eskakizun-mailak indarreko legeria betetzeko eskatzen diren gainetik daude eta urtero bi aldiz ikuskatzen dira, kanpo- eta barne-ikuskaritzen bidez (AENOR).

- Minusbalotasunen bat duten herritarren irisgarritasunari dagokionez:

21. Irisgarritasuna.

2004an, FORTAren eta Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioaren artean hitzarmen bat egin zuten, gorren eta entzuteko ahalmen-urritasuna duten pertsonen legeko helburuei eraginkortasunez erantzuteko tresna bat edukitzeko. Azpigituluak jartzeko zentro bat sortu zen.

2005ean, EiTBk hitzarmen bat sinatu zuen IGONEkin, azpigituluak jarrita dituzten programak eskaintzeko, gorrek aukera izan dezaten informazio- eta entretenimendu-edukiak eskuratzeko. Orduz geroztik, EiTBk hitzarmenak gauzatu ditu mota horretako zerbitzuak ematean espezialista diren hainbat enpresarekin.

- Ingurumenari dagokionez:

22. Stop CO² Euskadi.

2009ko urtarrilaren 13an, EiTBk *Stop CO² Euskadi* ekimenaren helburuekin bat egin zuen eta orduan hartutako konpromisoak indarrean dirau gaurdaino. IHOBek eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak kudeatzen duten ekimen horren helburu nagusia klima-aldaketaren aurka borrokatzea da. Horretarako, enpresen, herri-administrazioen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztien jarduerak eta konpromisoak hartu behar dira aintzat. Ekimen honen bidez, zenbait ekintza ezarri behar dira enpresan, berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko. EiTBren jarduerak sorrarazten duten CO² isuriaren gaineko informazioa biltzen du urtero-urtero erakundeak, urterik urte hobetzeko helburuz.

23. Ingurumen-hobekuntza kudeatzeko sistema.

2012az geroztik, EiTB Taldeak, Bilboko egoitzan, bere sozietate guztietan ingurumen-hobekuntza kudeatzeko ziurtagiria du, EiTBri emandako ISO 14000 arauaren menpe. Arau horrek egiaztatzen du ingurumena kudeatzeko eta hobetzeko sistema bat badagoela, eta ingurumen-gaietan aplikagarria den eta indarrean dagoen legeriaren betetzeari jarraipena egiten laguntzen du. Egun, kudeaketa-eredua hiru egoitza nagusietara zabalduta dago: Bilbo, Donostia eta Gasteiz.

5. zatia

2. gardentasun-txostena

gizartearekin arduratsuak diren komunikazio-
enpresei berezkoak zaizkien enpresa-
gardentasuneko eskakizunei buruz

GIZARTEAREKIN ARDURATSUAK DIREN ENPRESEN NAZIOARTEKO ESTANDARREI BURUZ KOMUNIKAZIO-TALDEEI APLIKATUTAKO GARDENTASUNA

1. EiTbko edukiei dagokienez.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
1.1. Arrisku- edukiak	a) Edukien trataera nolakoa den, ikusleen sentikortasunari min eman diezaioketen arrisku-edukien definizioa aintzat hartzen duten argitaratze-irizpideen argitalpena. Irizpideen banakaketa eta kasuan kasuko trataera. Arrisku-edukiak antzematea: • Indarkeria eta izua, • Bereizkeria(k), • Sexua eta pornografia, • Drogak eta argaltasunaren gurtza, • Hizkera zikina edo iraingarria, • Erlijioa, • Pertsonen ohore, intimitate eta pribatutasun eskubidearen urraketa.	EiTb bere gain hartutako irizpideak a) Programazioan mugak ezartzea tarte babestuko ordutegiaren barruan (06:00-22:00), indarkeria, hizkera zikina edo iraingarria, izua eta sexua/pornografia erakusten duten eszenen edukiei dagokienez. • 5/1982 Legea, EiTb sortzekoa. 3. artikulua. • Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 12. artikulua xedatzen duenaren ondoretarako, EiTb bere gain hartzen du ondoko agirian ezarritakoa: "Telebistako edukiei eta haurtzaroari buruzko Autoarauketa Kodea" eta "Telebistako saioak sailkatzeko irizpide orientatzaileak" Autoarauketa Batzordeak berrikusi eta aldatu zituen agiri horiek biak 2012ko irailaren 30ean. b) Pertsonen ohore, intimitate eta pribatutasun eskubideari buruzko argitaratze-irizpideak. ➔ Ikusi agiri honen 1.2. a). puntua c) Arrisku-eduki eta -gaiei buruzko argitaratze-irizpideak. EiTbren Estilo Liburuan jasota daude. • Indarkeria (Informazio Xedea, 20 eta 22. atalak eta Informazio-trataerari buruzko jarraibideak, 1, 2, 3, 4, 12 eta 13. fitxak) • Ideologia, erlijio, genero, sexu-joera, arraza, gizarte-maila edo kultur mailagatiko bereizkeria (Informazio-trataerari buruzko jarraibideak, 2, 4, 6, 7 eta 9. fitxak) • Alkohola, drogak, desgaitasuna, argaltasunaren gurtza eta beste (Informazio-trataerari buruzko jarraibideak, 11. fitxa) • Erlijioa (informazio-trataerari buruzko jarraibideen 5. fitxa)
1.2. Ohorea eta intimitatea errespetatzea	a) Ohorea eta intimitatea errespetatzeari buruzko definizio zehatza jasotzen duten argitaratze-irizpideen argitalpena. b) Erantzuteko eta zuzentzeko eskubidea.	• 5/1982 Legea, EiTb sortzekoa. 3 eta 4. artikulua. • EiTbren Estilo Liburua (<i>Etika, deontologia eta lanbide-jarduerari buruzko oinarrizko abiaburuak</i>, 56-61 atalak) • 5/1982 Legea, EiTb sortzekoa. 26-34 artikulua. • EiTbren Estilo Liburua (Lanbide Eskubideak - Erantzuteko eta zuzentzeko eskubidea, 90-97 atalak)

1.3. Gizarte-gai sentikorrei dagozkien edukiak	a) Erakundearen adierazpena, gizarte-gai sentikor jakinei buruzko jarrera azaltzen duena.	EiTBren Estilo Liburua. Kontzeptuzko ikuspegiari dagokionez, sentikortasun handieneko gaiak <i>EiTBren Informazio-xedean, 2. kapituluan</i>, jorratzen dira, eta argitaratze-irizpideei dagokienez, <i>Informazio-trataeraren jarraibideetan, 5. kapituluan</i>.
	b) Eduki-mota horien gaineko trataera-ikuspegiak.	

2. Albiste eta Aktualitateko edukiak ekoizteko prozesuak.

albiste eta aktualitateari buruzko edukien ekoizpenaren zuzeneko ardura eta, horren ondorioz, erakundearen konpromisoari eutsi behar dio hiru alderdi esanguratsuri dagokienez: informazioaren egiatasuna, adierazpen askatasuna eta profesionalen mendekotasunik eza.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
2.1. Informazioaren egiatasuna	a) Berariazko konpromisoaren adierazpena, informazioaren doitasun eta zehaztasuna direla eta.	5/1982 Legea, EITB sortzekoa. Hitzaurrea eta 3. artikulua. - EiTBren Estilo Liburua (Oinarrizko Abiaturuak - Egiatasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna eta mendekotasunik eza, 49-55 atalak) - EiTBren Erredakzio estatutua. 12. artikulua.
	b) Informazioa bilatu, erkatu eta emateko prozedurak jasotzen dituzten argitaratze-irizpideak.	EiTBren Estilo Liburua (Informazioa jasotzeko eskubidea, 12-19 atalak)
2.2. Adierazpen askatasuna	a) Berariazko konpromisoaren adierazpena, adierazpen-askatasuna dela eta.	5/1982 Legea, EITB sortzekoa. 2. artikulua. - EiTBren Estilo Liburua (Profesionalen eskubideak, 77. atala) - EiTBren Erredakzio estatutua. 9, 45, 82, 84. artikulua
	b) Hedabideko profesionalen adierazpen askatasuna bermatzeko prozedurak jasotzen dituzten argitaratze-irizpideak.	
2.3. Independentzia	a) Berariazko konpromisoaren adierazpena, mendekotasunik eza dela eta.	EiTBren Estilo Liburua (Oinarrizko Abiaturuak - Egiatasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna eta mendekotasunik eza, 54. atala)
	b) Kazetarien mendekotasunik eza edo independentzia bermatzeko prozedurak jasotzen dituzten argitaratze-irizpideak (opariak onartze, ordainketa, kolaborazio, interesen gatazka eta abarrei buruzko arauketa).	EiTBren Estilo Liburua (Profesionalen betebeharrak – Bateriaezintasunak 67-69 atalak); (Profesionalen betebeharrak – Haborokinak, opariak, gonbidapenak eta sariak, 72-75 atalak)

3. Haurrak eta nerabeak babestea.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
3.1. Berariazko konpromisoaren adierazpena	a) Berariazko konpromisoaren adierazpena, haurrak eta nerabeak babestu eta konpromiso hori erakundeko profesionalengana hedatzeko bidea dela eta.	5/1982 Legea, EITB sortzekoa. Hitzaurrea eta 3 eta 4. artikulua. - Ministerioarteko hitzarmena, 1993ko martxoaren 26koa, haur eta gazteen programazioko edukiak kontrolatzeko.
3.2. Legeriaren betetze-maila eta arauketa-kodeak.	a) Betetzea ziurtatzeko ezarri diren barruko mekanismoen argitalpena.	- Telebistako Eduki eta Haurtzaroari buruzko Autoarauketa Kodea, Espainiako Gobernuaren eta telebistako operadore nagusien (EITB barne) artean sinatutakoa. - EiTBren Estilo Liburua (Oinarrizko abiaburuak – Gazteak eta haurrak babestu eta sustatzea, 30-32 eta 54. atalak)
	b) Ez-betetzeen argitalpena.	Ez dago hasitako espedienterik Administrazioaren aldetik, ez EiTBren Administrazio Kontseiluaren aldetik, ezta Arartekoren aldetik ere, ez-betetze horiei dagokienez.
3.3. Etiketatze, sailkatze eta kontrol sistemak	a) Erabiltzen diren mekanismoak.	Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 12. artikulua xedatzen duenaren ondoretarako, EITBk bere gain hartzen du ondoko agirian ezarritakoa: “Telebistako programak sailkatzeko irizpide orientatzaileak” Autoarauketa Batzordeak berrikusi eta aldatu zuen agiri hori 2012ko irailaren 30ean.
3.4. Alfabetatze mediatikoa	b) Haur, aita-ama eta hezitzaileentzako alfabetatze-ekintzak.	2015/2016 aldian 3 garapenetan jardun da: i) ETBko edukiak zuzen identifikatzen direla ziurtatzea, telebistako eta haurren edukiak autoerregulatzeko kodearen arabera, ii) autoerregulazio kodea, edukietan komunikazio ez-sexista lortzeko eta iii) EitB.EUS webgunean dagoen orria diseinatzea eta abian jartzea, benetako berrien barruan gezurrezko berriak biltzeko (Interneten, gizarte-sareetan eta komunikabideetan), ikus-entzuleei horiek identifikatzeko eta eztabaidatzeko iritzi-elementuak emanez.

4. Publizitatea modu arduratsuan ematea.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
4.1. Arauketa eta autoarauketa kodeen betetze-maila	a) Konpromisoaren berariazko adierazpena.	5/1982 Legea, EiTB sortzekoa. 4 eta 9. artikulua. "Publizitatea emateko arauak EiTBko hedabideetan". EiTBren Administrazio Kontseiluak onartu zituen arau horiek 2012ko uztailaren 17an. - EiTB Autocontrol erakundeari atxiki zitzaion. Publizitate-agentziek, iragarleek eta hedabideek sortu zuten erakundea, batez ere, autoarauketa sistema kudeatzeko publizitatearen arloan. - EiTB Confianza Online kodeari atxiki zitzaion. Espainiako agintariek aintzatetsi dute autoarauketa sistema hori eta "Sareko konfiantzaren adierazgarri publikoa" eman diote, otsailaren 20ko 292/2004 Errege Dekretuak xedatutakoak betetzeagatik.
	b) Betetzea ziurtatzeko ezarri diren barruko mekanismoen argitalpena.	
	c) Ez-betetzeen argitalpena.	EiTBk Autoarauketa ziurtagiria argitaratzen du Gizarte Erantzukizuneko Oroitza-txostenetan.
4.2. Arrisku- edukien argitalpena	a) Publizitateko arrisku-edukien mota eta trataerari buruzko berariazko definizioa jasotzen dituzten ildoak edo irizpideak. Bereziki: adingabeen publizitatea, genero-berdintasunaren aurkakoa, ezkutukoa edo subliminala, legezko mugapenak eta kontrol sistemak.	"Publizitatea emateko arauak EiTBko hedabideetan". EiTBren Administrazio Kontseiluak onartu zituen arau horiek 2012ko uztailaren 17an.

5. Stakeholder direlakoekiko harremana.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
5.1. Xede-taldeekiko harreman-kanalak	a) Xede-taldeentzat ezarritako kanalen deskribapena. b) Kanalen eraginkortasunari buruzko datuak.	- EiTBren Gizarte Erantzukizuneko Oroitza-txostena - <i>A eranskina</i>: Enpresaren Gobernuari buruzko Txostena 3. atala – Gizarte Erantzukizunaren Eredua. - Badago bezeroei arreta egiteko zerbitzua.
5.2. Kexak eta demandak (argitalpena eta trataera)	a) Batzorde Mistoak eta erakundeak berak jasotako kexa eta demanden argitalpena. b) Kexa eta demandei emandako trataeraren azalpena.	- Badago demandak eta auziak kudeatzen dituen EiTBren lege zerbitzua. - Badago tresna sistematizatuen sorta, 12-30 urteko trazabilitatea daukana. a) Ikusleen fidelizazioa eta irudiaren azterketa aldizkako neurketa independenteen bitartez: Kantar Media (telebista), CIES eta EGM (irratia) eta Google analytics eta Nielsen-OJD (Internet). Era berean, badago sistematika bat irudiaren gaineko azterketak egiteko: OCA (Ikusleen Behatoki Kualitatiboa), <i>Kualitate Lantaldearena</i>.
5.3. Xede-taldeen nahien araberako egokitzapena (inkestak)	a) Xede-taldeen gogobetetasun-mailaz jakiteko sistemak.	EiTBren <i>Stakeholder</i> direlakoek pertzepzioaz jakin eta aztertzeko barruko azterketa sistematizatuak. c) Kanpoko erakundeek azterlanak, EiTBren jarraipena barne hartzen dutenak: "Euskal Soziometroa", Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egina; "Komunikabideen erabilpenaren azterketa: telebista eta irratia", L'Office Publique de la Langue Basque-k egina. - EiTBren prentsa bulegoa: Erakundeari buruzko albisteen argitalpena EiTBren telebista, irradi eta Interneteko kanaletan; albisteen banaketa beste hedabide batzuetara.

6. Erakundearen gobernua eta enpresaren gardentasuna.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
6.1. Erakundearen erantzukizunari lotutako gobernua	a) Badago Erakundearen Gizarte Erantzukizuna eta kode deontologikoak kudeatu eta kontrolatzeko organoa. b) Badaude EGERi buruzko planak eta helburuak. c) Administrazio Kontseiluak parte hartzen du EGERi buruzko helburu eta konpromisoen jarraipen eta kontrolean.	EiTBren Gizarte Erantzukizuneko Oroitza-txostena - <i>A eranskina</i> : Enpresaren Gobernuari buruzko Txostena 3. atala – Gizarte Erantzukizunaren Eredua. Halaber, 2. atala – Erakundearen Gobernu Sistema 2) Gobernu Organoak.
6.2. Betetze-mailaren egiaztapena.	a) Ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko konpromisoen betetze-mailaren kanpoko ikuskaritza. b) Kanpoko ikuskari batek egiaztatzen duen informazioan, EGERi buruzko konpromisoak/adierazleak aztertzen dira, edukiak ekoitzi eta emateari dagokionez.	EiTBk GRI A+ nazioarteko eredu estandarra erabiltzen du. Eredu horri jarraiki, ahalik eta iraunkortasun-adierazle gehien erabili behar da erakundearen. Adierazle horiez gain, EiTBk beste batzuk erabiltzen ditu bere borondatez, komunikazio talde bati dagokion berariazotasuna aintzat hartzeko. AENOR erakundeak, kanpoko ikuskari independente gisa, bi urterik behin egiaztatzen ditu EiTBren gizarte-erantzukizunari buruzko txostenak AENOR erakundearen ikuskaritza-txostenaren laburpena argitaratzen da Gizarte Erantzukizunari buruzko Oroitza-txostenaren atal gisa.
6.3. Barruko sentiberatzea	a) Badago erakundearen konpromisoak edo abiaburuak jasotzen dituen kode deontologikoa edo antzeko agiria. b) Badira profesionalentzako prestakuntza eta informazio jarduerak portaera etiko eta erakundearen EGERi buruzko politiken inguruan.	Gobernu organoek bete beharreko kode deontologikoa: 32/1983 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Herriko Autonomia-Elkartean herri-ihardunean aritzeagatiko elkartuezinak. Honako txosten hau idatzi orduko onartzeke egon den arren, kode etikoa eginda dago EiTBko profesional eta hornitzaile guztientzat. Barruko komunikazio-politika baliatzen da Zuzendaritza Batzorde eta Intranet sarearen bidez. Erakundeko langile guztiek eta EiTBrentzat lan egin ohi duten kanpoko profesionalek (kolaboratzaileak eta <i>outsourcing</i> profesionalak) badute sarbidea.
6.4. Ekoiztetxeentza ko kode etikoa	a) Badago erakundearen konpromisoak edo abiaburuak jasotzen dituen kode deontologikoa edo antzeko agiria, ekoiztetxeek bete beharrekoa.	Honako txosten hau idatzi orduko onartzeke egon den arren, kode etikoa balekoa da EiTBko profesional eta hornitzaile guztientzat.

7. EiTb Taldearen erakunde-kudeaketa.

Maila	Alderdiak	Konpromisoen ebidentziak eta non ageri diren
7.1. Enpresaren antolaera	a) Enpresaren egitura	EiTbren Gizarte Erantzukizunari buruzko Oroitza-txostena - <i>A eranskina</i> : Enpresaren Gobernuari buruzko Txostena Memoria web honen bidez eskura daiteke: www.EiTB.eus
	b) Gobernu Organoak	EiTbren Gizarte Erantzukizuneko Oroitza-txostena - <i>A eranskina</i> : Enpresaren Gobernuari buruzko Txostena, 2. atala – Erakundearen Gobernu Sistemari buruzko Memoria web honen bidez eskura daiteke: www.EiTB.eus
	c) Organigrama	Barruko komunikazio-politika baliatzen da Intranet sarearen bidez. Erakundeko langile guztiek eta EiTBrentzat zein bere sozietateentzat lan egin ohi duten kanpoko profesionalak badute sarbidea. Goi-zuzendarien organigrama web honen bidez eskura daiteke: www.EiTB.eus
7.2. Erakundearen plangintza	a) Plan estrategikoa	EiTbren Gizarte Erantzukizunari buruzko Oroitza-txostena - <i>A eranskina</i> : Enpresaren Gobernuari buruzko Txostena, 3. atala – Gizarte Erantzukizunaren Eredua. Memoria web honen bidez eskura daiteke: www.EiTB.eus
	b) Programa-kontratua	Programa-kontratua: 2016-2019 2016 Programa Kontratuaren adierazleen gauzatzearen aginte-koadroa.
	c) Ustiapen aurrekontua	Eusko Jaurlaritzak onartutako aurrekontu ofizialei lotuta dago. Jendaurrean jartzen da Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publiko guztien aurrekontuekin batera. Aurrekontu ofiziala ustiapen-aurrekontuaren barruko kudeaketa bideratzeko tresna da.
	d) Goi-zuzendarien soldatak	Goi-kargudunen soldatak ondokoan xedatzen dira: Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuaren 6. artikulua, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzeko dena.
7.3. Barne araudia	a) Estilo Liburua	EiTbren Estilo Liburuak aktualitateko gaiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erredakzioetan zalantzak eta eztabaidak sorrarazten dituzten auzi deontologikoak antzematen ditu. Horiek guztiak aztertu eta horien inguruko jarrera finkatzen ahalegintzen da, hedabide publikoa den aldetik: zertarako lan egiten dugun eta nola lan egiten dugun. 2016ko uztailean argitaratutakoa; ISBN: 978-84-940427-6-8.
	b) Erredakzio-estatutua	EiTbren Erredakzio estatutuak EiTBko erredakzioko profesionalen eta erakundearen menpeko sozietateen kode deontologikoa jasotzen du. Horrez gain, Erredakzio Kontseiluak ezartzen ditu, Erredakzio Estatutuan

		xedatutakoa betetzeko kontrol-organo gisa. EiTB Taldeak kanpoko zeinahi pertsonak eskuratu dezake, EiTBko Estrategia eta Komunikazio zuzendariari idatziz eskatuta.
	c) Hitzarmen kolektiboak	Langileen eta enpresaren arteko lan-harremanak arautu behar dituzten eskubideak eta harremanak ezartzen dituzte. Barruko komunikazio-politika baliatzen da Intranet sarearen bidez. Erakundeko langile guztiek eta EiTBrentzat zein bere sozietateentzat lan egin ohi duten kanpoko profesionalek badute sarbidea. EiTB Taldeak kanpoko zeinahi pertsonak eskuratu dezake, EiTBko Estrategia eta Komunikazio zuzendariari idatziz eskatuta.
	d) Publizitatea emateko arauak	“Publizitatea emateko arauak EiTBko hedabideetan”. EiTBren Administrazio Kontseiluak onartu zituen arau horiek 2012ko uztailaren 17an. Agiria www.EiTB.eus webgunean eskura daiteke.
	Telebistako edukiei eta haurtzaroari buruzko Autoarauketa Batzordea.	Telebistako Eduki eta Haurtzaroari buruzko Autoarauketa Kodea, Espainiako Gobernuaren eta telebistako operadore nagusien (EiTB barne) artean sinatutakoa. Espainiako Gobernuaren Presidentzia Ministerioaren menpeko www.tvinfancia.es webgunean eskura daiteke agiria.
	f) Telebistako programak sailkatzeko irizpide orientatzaileak	Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 12. artikulua xedatzen duenaren ondoretarako, EiTBk bere gain hartzen du ondoko agirian ezarritakoa: “Telebistako programak sailkatzeko irizpide orientatzaileak” Autoarauketa Batzordeak berrikusi eta aldatu zuen agiri hori 2012ko irailaren 30ean.
	g) Kontratatzailearen Profila	EiTBk eta bere sozietateek www.EiTB.eus webgunean argitaratzen dute kontratuen legearen eraginpeko zerbitzuen kontratazioari, hornikuntzei eta lanei buruzko informazio guztia, ondokoari jarraiki: azaroaren 14ko sektore publikoaren kontratuei legearen testu bategina.
7.4. Emaizak	a) Urteko balantzea	Txosten horrek EiTB Taldearen eta bere sozietateen balantzea eta emaitzen kontua jasotzen ditu. Kanpoko erakunde independente batek ikuskatzen du balantzea urtero-urtero. Gainera, Herri kontuen Euskal Epaitegiaren eskura dago eta Eusko Legebiltzarrak ikuskatu dezake hala eskatzen duen guztietan. Txostenak publikoak dira eta herritarren eskura daude Merkataritza Erregistroan. Gainera, www.EiTB.eus webgunean argitaratutako ikuskaritza-txostenean txertaturik daude.
	b) Urteko kontuen ikuskaritza	KPMG erakunde hautatu da EiTBren eta bere sozietateen urteko kontuak ikuskatzeko 2013-2015 aldiak hartzen dituen hiru ekitaldietan. EiTB Taldearen emaitza bateratuen gaineko ikuskaritza

ENPRESAREN GOBERNUARI BURUZKO TXOSTENA

		amaitutakoan, www.EiTB.eus webgunearen erakundearen atalean argitaratzen da.
	c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ikuskaritza	Txosten ofizialak herritarren esku daude, erakunde honen webgunearen bidez: www.tvcp.org
	d) Erakundearen Gizarte Erantzukizunari buruzko txostena	EiTBren Gizarte Erantzukizunaren oroitza-txostenak 4 agiri ditu: - EiTBren Gizarte Erantzukizuna. 2015-2016ko oroitza-txostena - A eranskina: Enpresaren Gobernuari buruzko txostena. - B eranskina: Etekin Adierazleen Taula (GRI) - C eranskina: Informazio Korrespondentziaren Taula (GRI) Aurrekoez gain, AENOR erakundearen egiaztatze-txostenaren laburpena argitaratzen da Gizarte Erantzukizunari buruzko oroitza-txostenaren atal gisa, eta hori guztia www.EiTB.eus webgunean eskura daiteke.

6. zatia

3. gardentasun-txostena

plantillari, zuzendaritza-taldeari eta ordainsari-
sistemari buruz

1. Txostenaren xedea eta arrazoia

EiTBk enpresa-kudeaketan eta plantillarekin, zuzendaritza-taldearekin eta ordainketa-sistemarekin zerikusia duen informazioan gardentasun politika ezarrita dauka. Horren froga da 2007ko urteaz geroztik EiTB Taldeak konpromiso garbia daukala gizarte erantzukizun korporatiboa garatzeko eta kudeaketa adierazleen gaineko gardentasunean.

Plantillari, zuzendaritza-taldeari eta ordainketa-sistemari buruzko gardentasun-txostena 2016. urtekoa da, eta benetako informazioa jasotzen da Eranskinetan, 2016ko abenduaren 31n.

EiTBk borondatez hartzen ditu bere gain Gizarte Erantzukizuneko konpromiso horiek eta bere eginkizuna da legez behartzen dutena baino gehiago ekartzea gizarteari. Konpromiso horiek enpresaren munduarentzat, sektore publikoarentzat, eta komunitatearentzat dira onuragarriak, eta *Stakeholderen* interes legitimoa asetzen laguntzen dute.

2. Txostenaren edukia eta legezkotasuna betetzea.

Txostenaren irismena EiTB Taldea da: EiTB erakunde publikoa, ETB, S.A., EUSKO IRRATIA, S.A., RADIO VITORIA, S.A. eta EITBNET, S.A.

Dokumentuak ondoko hauei buruzko informazioa ematen du:

- EiTBko pertsona guztien ordainsari sistema: ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistiko batean eta informazio osagarria.
- Zuzendaritza taldea - EiTBko organigrama: karguak eta ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistikoan.
- Izendapen libreko beste kargu batzuk: karguak eta ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistikoan.
- Laneko plantilla, kargua edo erantzukizuna dutenak kanpo: ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistikoan.

Txosteneko datu guztiak benetakoak dira, eta 2016ko ekitaldiko itxierari dagozkio. Estatistikako erabilgarritasuna dela eta, lanaldi osoan lan egiten dituen eta 2016ko ekitaldi osoan Gizarte Segurantzak kotizatu duten pertsona guztiak barne hartzen ditu.

Beste datu esanguratsu batzuk, hala nola Administrazio Kontseiluarenak, familiako eta laneko bizitzako uztarketaren inguruko estatistiketakoak, absentismoarenak eta abar RSC-GRI GA memorien berezkoak dira, eta Gizarte Erantzukizuneko Memorian jaso eta argitaratzen dira. Beraz, ez dira txosten osagarri honetan jasotzen.

Dokumentu hau egiterakoan kontuan hartu dira aipatutako idazkiari eragiten dioten legezkotasun printzipioak, eta bereziki errespetatu da Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DPBLO) babesten duen informazio pertsonala. Onartu edo baimendutako informazio guztia eskaintzen du.

3. EiTbko pertsona guztien ordainsari sistema: ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistiko batean eta informazio osagarria.


2016ko pertsonak guztira: 736 ⁽¹⁾

Batez besteko soldata gordina/2016: 46.205€

Soldata gordinen tartea: 22.373€ - 93.055€

Hileko batez besteko soldata garbia 2016: 2.727€

⁽¹⁾ EITB taldeko plantilla, 2016. urtearen amaieran, 992 pertsonakoa izan da urtean (**3. eranskina**). Horietatik, lanaldi osoan lan egin duten eta Gizarte Segurantzak kotizatu duten pertsonak 736 dira. Adierazten diren zenbateko ekonomikoetan nominan jasotzen diren ordainsari sistemako kontzeptu guztiak barne hartzen dira: oinarritzko soldata, antzinasuna eta hitzarmen kolektiboetan ezarritako plusak (jaiegunak, gaueko ordutegia, disponibilitatea eta abar). Aurreko ekitaldiko atzerakinak ez ditu barne hartzen. Lanaldi partzialeko langileek dagokion ordainsari proportzionala jasotzen dute.



4. Zuzendaritza taldea - EiTbko organigrama: karguak eta ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistikoan. Goi zuzendaritza barne.

2016ko pertsonak guztira: 66 ⁽²⁾


Batez besteko soldata gordina/2016: 60.259€

Soldata gordinen tartea: 42.315€ - 87.843€

Hileko batez besteko soldata garbia 2016: 3.017€

Karguen zerrenda: **1. eranskina**

⁽²⁾ 2013ko ekainaren 28ko Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera, organigraman, gehienez, 75 pertsona egon daitezke. Horietatik, lanaldi osoarekin lan egiten dute eta Gizarte Segurantzak ekitaldi osoan zuzendari gisa kotizatu dutenak 66 dira. Jasotzen diren zenbateko ekonomikoek ordainsari sistemaren kontzeptu guztiak barne hartzen dituzte.



5. Antolaketan/edukietan erantzukizuna duten beste profesional batzuk: ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistikoan.

2016ko pertsonak guztira: 28 ⁽³⁾

Batez besteko soldata gordina/2016: 52.006€

Soldata gordinen tartea: 33.265€ - 69.294€

Hileko batez besteko soldata garbia 2016: 2.875€

Karguen zerrenda: **2. eranskina**

⁽³⁾ Plantillako profesionalek erantzukizuneko karguak har ditzakete soldata erantzukizun-plusekin osatuz; 2013ko ekainaren 28ko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren arabera, kanpoko langileak ere kontrata daitezke, organo horri pertsona, kargua eta meritu profesionalak jakinarazi, hala badagokio. Zerrendan lanaldi osoarekin lan egin duten eta ekitaldi osoan Gizarte Segurantzari kotizatu duten pertsonak jasotzen dira. Jasotzen diren zenbateko ekonomikoetan ordainsari sistemaren kontzeptu guztiak barne hartzen dira.



6. Laneko plantilla (ez dira barne hartzen organigramako langileak eta erantzukizuna duten beste profesional batzuk): ordainsaria (gordina eta garbia) grafiko estatistikoan.


Pertsonak guztira: 642 ⁽⁴⁾

Batez besteko soldata gordina/2016: 44.507€

Soldata gordinen tartea: 22.372€ - 93.055€

Hileko batez besteko soldata garbia 2016: 2.689€

⁽³⁾ Zerrendan lanaldi osoarekin lan egin duten eta ekitaldi osoan Gizarte Segurantzari kotizatu duten pertsonak jasotzen dira. Adierazten diren zenbateko ekonomikoetan ordainsari sistemaren kontzeptu guztiak barne hartzen dira. Ez dira barne hartzen aurreko ekitaldietako atzerakinak. Lanaldi partzialeko langileek dagokion ordainsari proportzionala jasotzen dute.



7.- EiTb Taldearen ordainsari politika

EiTb erakunde publikoaren eta bere mendeko sozietateen ordainsari politika, besteak beste irizpide orokor honen mende dago:

Langileak EiTbren edo haren mendeko sozietateen hitzarmen kolektiboetan jasotako xedapenen mende daude. Kolektibo honetan, EiTbri eta beraren sozietateei lotutako besteren konturako langileak sartzen dira. Horrez gain, EiTbko eta bere sozietateetako plantilla finkoan dauden erantzukizuneko karguak (2. eranskinean jasotzen direnak) hemen ere sartzen dira. Hitzarmen kolektiboen ordainsari izaerako eta edukiko xedapenen mende geratzen dira, EiTb Taldeko plantillako gainerako langileak bezala.

Zuzendaritzako langileentzako irizpidea: EiTbko Administrazio Kontseiluak ofizialki onetsitako zuzendaritza organigraman, EiTb sortzeko maiatzaren 5eko 5/1982 Legean ezarritako baldintzetan, aurreko puntuan deskribatutako arau orokorretik kanpo geratzen dira zuzendaritzako langileak (zuzendaritzak eta burutzak). EiTbren eta bere mendeko sozietateen hitzarmen kolektibo horien berariazko arauketaren bidez, izendapen libreko zuzendaritza karguak berariaz baztertuta daude hitzarmen kolektiboen aplikazio esparrutik.

Goi-zuzendaritzako ordainsaria (bost) eta EiTbko eta bere sozietateetako gainerako zuzendarien ordainsaria bat datoz legezko araudiarekin, EAEko administrazio orokorraren mendeko erakunde eta sozietate publikoei aplikatu beharrekoa. Indarrean dagoen legediak legez ezarritako ordainsari-muga berak aplikatu behar zaizkie. EiTbko gainerako zuzendaritza karguen (burutzak) ordainsaria, ordea, aipatutako zuzendaritza karguen ordainsariaren eta aipatutako lege-mugen azpitik dago. Egokia da, EiTbko eta bere sozietateek burutza horien erantzukizun eta agintepean dauden langileentzat sinatutako hitzarmen kolektiboetan itundutako soldata-mailei dagokienez.

3. gardentasun-txostena - Plantillari eta zuzendaritza-taldeari buruz.

ERANSKINA

1

PROFESIONALEN ZERRENDA EITB-KO ETA BERE
SOZietateen ORGANIGRAMAN
2016KO ABENDUAREN 31N

(*) Langile finkoak, EITB barruan jarduera profesionala izanda.

Gainerakoak kargurako profesionaltasun irizpideekin izendatutako profesionalak dira (EiTB sortzeko 5/1982 Legearen 16f. art.).

Zuzendaritza	Zuzendari nagusia - *Maite Iturbe
Zuzendaritza	Zuzendari kudeatzailea - Jesús Elguezabal
Zuzendaritza	Estrategia eta Komunikazioko zuzendaria - *Andoni Aranburu
Zuzendaritza	ETBko zuzendaria - Edu Barinaga
Zuzendaritza	EiTB Irratiaren eta koordinazio editorialaren zuzendaria – *Odile Kruzeta
1 EiTB	Teknologia burua – *Jonás Álvarez
1 EiTB	Zerbitzu juridikoen zuzendaria – *Nieves Apezteguia
1 EiTB	EAZko burua – *Bakarne Areitioaurtena
1 EiTB	Kontabilitate eta finantza burua – *Ramón Berasaluce
1 EiTB	Prestakuntza burua – Madalen Bermeosolo
1 EiTB	Ikerketa eta audientzien burua – Rebeka Garai
1 EiTB	Giza baliabideen kudeaketa burua – Olatz Goirigolzarri
1 EiTB	Ekonomi eta finantza zuzendaria – Javier Gonzalez
1 EiTB	Garapen burua – Jon Kareaga
1 EiTB	Promozio eta irudi burua – Luis Manuel Martin
1 EiTB	Erosketa burua – Roberto Martinez
1 EiTB	Publizitate burua – *Idoia Moragues
1 EiTB	Arlo komertzialeko zuzendaria – *Edurne Ormazabal
1 EiTB	Aurrekontu burua – Cristina Pérez
1 EiTB	Sistema zuzendaria – Iñaki Regidor
1 EiTB	Giza baliabideetako zuzendaria – Javier Salcedo
1 EiTB	Laneko prebentzioa eta osasuneko burua – Alberto Santos
1 EiTB	Lan-harremanen burua – Ainhoa Sinde
1 EiTB	Egoitza burua – *Aitor Villa
2 ETB	Ustiapen eta Ingeniaritzako zuzendaria– *Mikel Agirre
2 ETB	Kanpoko produkzioen burua – *Angel Mari Aguirrezabal
2 ETB	Albistegietako zuzendaria – *Maite Amundarain
2 ETB	Produkzio zuzendaria – *Miriam Anitua

2 ETB	<i>Logistika burua</i> – *Javier Aparicio
2 ETB	<i>EiTBren Miramongo ordezkaria</i> – *Jabier Arizkorreta
2 ETB	<i>Programetako produkzio burua</i> – *Aitor Auzmendi
2 ETB	<i>Kiroletako produkzio burua</i> – *Jose Luis Barandika
2 ETB	<i>Albistegietako errealizazio burua</i> – Amaia Beitia
2 ETB	<i>Programazio zuzendaria</i> – Joselu Blanco
2 ETB	<i>Plangintza burua</i> – *Josean Eceiza
2 ETB	<i>Euskarri berrien burua</i> – *Mikel Frutos
2 ETB	<i>Programa eta arte zuzendaria</i> – Gorka Garcia
2 ETB	<i>Bilboko Produkzio Zentroko burua (ustiapena)</i> – *Roberto Gogeaskoechea
2 ETB	<i>Besteren produkzio-lanen erosketa burua</i> – *Jesús Higuera
2 ETB	<i>Dokumentazio eta artxibo burua</i> – *Luis Isusi
2 ETB	<i>Eguneroko kirol informazio burua</i> – *Jose Ituarte
2 ETB	<i>Esplotazio euskarri burua</i> – *Igor Jainaga
2 ETB	<i>Euskara zerbitzuko burua</i> – *Asier Larrinaga
2 ETB	<i>Ingeniaritzako zuzendariordea</i> – *Koldo Lizarralde
2 ETB	<i>Kiroletako errealizazio burua</i> – *Fernando Lopetegi
2 ETB	<i>Produkzio zentro burua</i> – *Juan Carlos Loroño
2 ETB	<i>Zerbitzu eta eszenografia burua</i> – Aitziber Meabe
2 ETB	<i>Emisioen burua</i> – *Denis Mitxelena
2 ETB	<i>Miramongo Produkzio Zentroko burua (ustiapena)</i> – *Juan Olalde
2 ETB	<i>Kirol burua</i> – *Mikel Olazabal
2 ETB	<i>Programen errealizazio burua</i> – *Jose Mari Salinas
2 ETB	<i>Arte eta irudi burua</i> – *Miren Sanz
2 ETB	<i>Mantentze orokorraren burua</i> – Igor Udaondo
2 ETB	<i>Albistegietako produkzio burua</i> – *Lide Zubia
2 ETB	<i>Eguneroko albistegien zuzendariordea</i> – *Maite Zurikarai
